

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
AN^tZA S.A.L.

Azaleko argazkia:

Ikor Kotx
(Lezoko Herri Eskolako ikaslea)

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.998/IX/22

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

LANBIDE HEZIKETA BERRIA MARTXAN DA

16 elkarrizketa
Begoña Salas

21 Gehigarria
Mahai-jokoetan euskaraz aritzeko
proposamena
Santi Angulo

30 Ikasturte berriko datuen artean dantzan

32 Ekarpena
Irakaskuntzaren kalitatea, efikazia...
Pello Aramendi

35 Berriak

38 Esperientzia
Haurren neuronak estimulatuz eta ordenatuz.
Ulises programa
La Salle Ikastetxeak

41 Nazioartea
Brasilen ere pobrezia kolore beltza du.
Izaskun Madariaga

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasi ez ditu bere gain hartzen
laguntzaileek plazaratutako iritziak
ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación


Programa didaktikoak



- Ardoaren prozesua.
- Zainzuriaren ikerketa.
- Nafarroako ezagupena.
- Lizarrako historia.
- Erromanikoa.
- Santiagoko bidea.
- Karlismoa.
- Uraren ikasketa.
- Zaborraren birziklapena.

BESTERIK

- Igerilekua.
- Zaldiak.
- Mini golfa.
- Piraguismoa.
- Puenting.
- Eskalada.
- Orientabidea.
- Espeleologia.
- Mendi bizikleta.



The advertisement is divided into two horizontal sections. The top section has a dark background and features the 'LIZARRA KANPAINA' logo on the left. To its right, the text 'Mahats Kanpaina Bilketa' is written in a large, white, serif font. Below this, '1998ko' is written on the left and 'Irailaren 25etik Urriaren 25era' on the right. A cluster of grapes is positioned between the two dates. The bottom section has a white background and features a large, stylized tree silhouette. The text '1999: Jakobeo Urtea' is written above the tree, and 'Santiago Bidea Nafarroan' is written in a large, bold, black font across the bottom of the tree.

Harremanak:

948 - 55 17 33


Lizarra - NAFARROA

Eskola berriaren gorpuzketan ezinbestekoa den herritartasunari ekin zaio

URRIA

e d i t o

r i a l a



Itxaropena. Hau da euskal gizartean hedatzen ari den sentimentua. Ikastetxeetako hizkuntz normalizazioaren plana, Euskararen Kontseilua, batasun sindikala, Lizarrako ituna, su-
etena... arrazoi ederrak itxaropen sortzaileak izateko.

Euskal herritarren arteko zatiketari eta horrek generamatzan amildegi bideari muzin eginez, batasunean eta elkarlanean eraikuntza lanari heldu nahi zaio. Gainera, adierazpen askatasuna ozen aldarrikatzen ari da.

HIK HASIk aurreko zenbakietan adierazi izan duen bezala, kontrajarritako bi indar ezagutzen ditugu aspaldi. Alde batetik, antolaketa erdikoien ezarpena; eta bestetik, herritarrok sustatutako eraikuntza.

Honek guztiak bere ondorio zuzena du Euskal Hezkuntzan. Euskara eta Euskal Kulturaren ezarpenean, Hezkuntza Sistemaren antolaketa, diruaren banaketan, zentrozen erabakitze ahalmenean, langileen prestakuntzan, klaustroen egonkortasunean, ikasleek ikasketak aukeratzeko eskubidean eta abarrear.

Uler al daiteke ikasturte hasieran klaustro erdia baino gehiago berria izatea? Onar al daiteke ikastetxe euskaldunetara langile ez euskaldunak bidaltzea? Isil al daiteke antzeko lana egiten duten langileak lan-

baldintza zeharo desberdinetan aritzea? Jasan al daiteke ikasle euskaldunak edota elebidunak sortzen ez dituzten hizkuntz ereduak mantentzea?...

Euskal Herrian, azkeneko hamarkadetan eskola berri nahi izan dutenen aldetik bi eskaera nagusi egon dira: 1) Gure eskolak, etorkinei beren sorterrria maitatzen laguntzeaz gain, euskara eta euskal kulturaren oinarritutako irakaskuntza eta bizitza transmititu behar dituela, gure herria ere maitatzea lor dezaten. 2) Ongi funtzionatu nahi bada, ezinbestekoa dela ikastetxearen autonomia, maila guztietan.

Orain arte egindako lana izugarria izan da eta euskal hezkuntza munduan aurrerapauso handiak eman direla esan genezake. Baina egindakoa ez da nahikoa. Gaur egun, ez zaie ikasle guztiei ertain eta goi mailako ikasketak beraiek nahiko luketen hizkuntzan jarraitzeko aukera eskaintzen. Beraiek izan beharko luketen aukeratzeko eskubidea ez da errespetatzen, ikasketak ez zaizkielako eskaintzen edota aurretik eskaini zaien euskara maila nahikoa ez delako.

HIK HASIk itxaropenez hartu du hasi duen 4. ikasturtea: hausnarketa, ebaluazio eta urrats berriak emateko garaia dela deritzo. Aukera ona izan baitaiteke Euskal Eskolaren bidean aurrerapauso berriak lortzeko. Dugun itxaropena eta ilusioa zerbaitetan gauzatuko bada lan eginez lortuko dela jakinda, lanerako prest gaituzue. Zuek ere hala egon zaitezten, har ezazue gure gonbidapen zintzoa.

*Hezkuntzan
ere
itxaropena
beharrezkoa
da*



D ereduaren onarpena zabaldua dagoen arren, bere gauzapenak oztopoak ditu oraindik ere

k r o n



EAEko Hezkuntza Sailak eta sindikatuek 98/99 ikasturteko hitzarmenea sinatu dute

EAEko Hezkuntza Saila eta ELA, LAB eta EILAS sindikatuak izan dira unibertsitez kanpoko irakasleentzako akordioa sinatu dutenak. EAEko 18.000 irakasle ingururi eragiten die hitzarmenak. 1998-99 ikasturteari dagokiona da, nahiz eta hainbat puntuak iraupen luzeagoa izan.

Akordioan irakasleen lan baldintzak eta beste hainbat puntu biltzen dira. Soldaten igoera da hitzarmeneko puntu bat. Administrazioan %2,1eko igoera izango da, baina irakasleek gehiago

kobratuko dute sei urteko lanaldiaren ondoren jasoko duten kopurua gehitzen zaiolako. Bestalde, behin-behineko irakasleen egonkortasuna luzatu egingo da 2001. urtera arte.

Lan banaketa areagotzeko konpromezua ere hartu da hitzarmean. Horrela, sei hilabete edo urtebeteko baimen ordaindu gabea izateko aukera izango dute irakasleek eta lan orduak murrizteko ere bai.

Prestakuntza eta euskalduntzeari dagokionez, biak indartu nahi dira. Hori dela eta, urtebeteko liberazio txandak egin ahal izango dira eta gehienez hiru urtetan. Prestakuntza hobetzeko, berriz, hiru hilabeteko ikastaroak izanen dira.

Akordioak dakarren aldaketarik esanguratsuena iraileko azterketak ekainera pasatzea da. Ekaineko azken aстера pasako dira azterketa hauek. Horri loturik, selektibitatea ekainean eta uztailean egitea planteatzen ari dira. Iraileko deialdia desagertu egingo litzateke horrela. Dena dela, datoren ikasturtetik aurrera izango da hori, 1999-2000tik aurrera, alegia. Gainera, data aldaketa ezezik, azterketa beraren planteamendua ere aztergai dago.

Heziketa bereziarentzat laguntza gehiago EAEn

Uztailean arautu zen heziketa bereziko dekretua martxan da EAEn. Dekretu honen helburua heziketa berezia behar duten ikasleei behar bezala ikasteko baliabideak eta materialak eskuera jartzea da. Guztira 5.500 ikasle dira heziketa berezia behar dutenak. Hauetatik %80ak ikastetxe arruntetan ikasten du eta %20ak ikastetxe berezietan.

Azken hauek autistak, garapen arazo nabarmenak dituztenak edo gorrak diren ikasleak dira. Ikastetxe arruntetan daudenak, aldiz, urritasun psikiko eta arazo fisikoak dituztenak, egoera sozial kaskarrean bizi direnak eta gehienak baino adimen altuagoa duten ikasleak dira.

Hauei guztiei laguntzeko Hezkuntza Sailak 15.000 milioi pezeta (600 libera inguru) erabiliko ditu ikasturte honetan, bere aurrekontuaren %7. Diru horrekin 2.000 irakasle berezi kontratatuko dira eskolak emateko. Horrez gain, baliabide materialak erosi eta ikastetxeak egokitu dira.

Hezkuntza Saileko arduradunek adierazitakoaren arabera, ikasle hauek ia guztiek amaitzen dituzte derrigorrezko ikasketak. Ikasketak amaitu ostean EAEko diputazioen tailerretan hasten dira lanean.

“Bada garaia berez euskalduna den paradigmari eusteko, gure herriaren iraganaldia eta geroa interpretatzeko unean, geure nortasunean oin harturiko historia egin dezagun”. (Alfontso MARTINEZ LIZARDUIKOA)

i k a

Nafarroako euskarazko irakaskuntzaren aldeko taldeak elkarturik

Nafarroako Ikastolen Elkarteak, ELA, LAB, CCOO eta EILAS sindikatuek eta Sortzen irakaskuntza publikorako elkarteak pauso berri bat eman dute euskal irakaskuntza bultzatzeko. Talde iraunkorra sortu dute euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko asmoz. Izan ere, urtero urtero administrazioak jartzen dituen oztopoekin egiten dute topo. Horregatik, administrazioari euskaraz ikastea nafar guztiek duten eskubidea dela garbi esan nahi diote. Taldeko partaideek adierazi zuten, euskararen irakaskuntza garapenean dago, bultzada eta laguntza guztiak behar ditu, baina, aldiz, gero eta oztopo gehiago jastn behar izaten du administrazioetik. Horren adibide da ikasturte hasiera honetan D eredia irekitzeko izan diren eskaerak eta ukapenak.

Horrelakorik berriro gerta ez dadin lan egingo du talde iraunkorrek. Besteak beste, egingo dituen eskaeren artean Euskararen Legearen aldaketa dago, hori baita taldearen helburuetako bat.

Herri Batasunak ere Euskararen Lege berria aldarrikatu du. Alderdi honen ustez euskararen ofizialtasuna ezin da biztanleriaren %10 soilik hartzen duen eremura mugatu. Ofizialtasuna Nafarroa osoari dagokiola azpimarratu du.



Toki-Eder ikastolak langile euskalduna nahi du

Gasteizko Toki-Eder ikastola publikatuan ikasturte hasiera mugitua izan dute. Garbiltzaile-atezain euskalduna eskatu arren, Gasteizko udalak ez zuen bere eskaera bete, eta horregatik, langilea botatzea erabaki zuen eskola zuzendaritzak. UAk, hori jakin bezain laister, salaketa jarri zuen Hezkuntza Ordezkaritzan.

Orain arte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ardurapean zegoen mantenimenduko langileek kontratazioa, baina joan den ekainean Gasteizko udalaren esku utzi zuen bost zentrotako ardura hori. Toki-Ederrek

langile euskalduna behar zuela ohartazi zuen, baina badirudi ez duela aintzat hartu.

Azkenean Hezkuntza Sailak tartean sartu behar izan du. Toki-Ederri langileari lanera joaten uzteko eskatu dio, eta aldi berean, langile euskaldun bat aurkitzeko gestioak egingo dituela adierazi du.

Era berean, Denon Eskola Arabako Guraso Elkarteak, ELAk eta Euskaltzaleon Elkarguneak Gasteizko udalari langileak euskaraz jakin dezaten bermatzeko eskatu diote. Hauek adierazitakoan arabera, Gasteizko udalak lanpostuhoriek betetzeko zituzten zuzentzen ikastolak hizkuntz perfil egokia zuten langileekin betetzeko hitza hartu zuen. Ikastetxeko langile guztiek euskara jakitea eta hitz egitea oso garrantzitsua dela diote.

Hala ere, ez da arazo hori duen zentro bakarra. Hernaniko Langile ikastolak jangelarako hiru langile eskatu zituzkion Eusko Jaurlaritzari. Bidali, bidali ditu, baina euskara ez dakitenak. Kasu honetan, ez da udala izan langile horiek bidali dituen, Eusko Jaurlaritzak baizik.

Nola uler daiteke zentroaren funtzionamendu osoa euskaraz egiten bada bertako langileek euskara ez jakitea?

GAIA

Lanbide Heziketa



1 998/99
ikasturtea
berrikuntzaz

beterik hasi da
EAEko eta Nafarroako Lanbide Heziketako zentroetan. Erreformak "bide profesionala" ukitu du eta baita eraldatu ere. Heziketa zikloak, moduluak, titulazio berriak eta zehatzak, praktikak eta abar izanen dira hemendik aurrerako eskaintzak.

berria martxan da

Zehatzago ezagutu nahi izan ditugu berrikuntza horiek guztiak. Zein diren titulazio berriak, zenbat, non eskainiko diren, zertan aldatu diren aurrekoekin konparatuz, zein hizkuntzatan eskainiko diren, irakasleriaren prestakuntza nolakoa izan den, zer hartu den kontuan ziklo hauek diseinatzerakoan eta abar.

Javier Mardones IDCko (Instituto de Diseño Curricular) Lanbide Heziketako programako koordinatzailearengana eta Pablo Eskibel Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako arduradunarengana zuzendu gara galdera hauen erantzunak jasotzeko eta ideiak argi eta garbi edukitzeko asmotan. Eta era berean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiko Jesus Gonzalezek luzatu dizkigu Nafarroako berezitasunak.

Zein da nabaritutako den aldaketa Lanbide Heziketan? Bada, Heziketa Ziklo berrien sorrera. Ikasturte honetatik aurrera Ziklo berriak ezarriko dira, alegia, titulazio berriak. Pablo Eskibel Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako arduradunak argitu digunaren arabera, 1995ean hasi ziren Ziklo berri hauek ezartzen EAEn, baina aurten egingo da ezarpen orokorra maila ertaineko titulazioen kasuan (Ziklo hauen artean maila ertainekoak eta goi mailakoak baitaude eta azken hauen ezarpen orokorra 1999/2000 ikasturtean egingo da). Nafarroako Lanbide Heziketa berriari dagokionez ere gauza bera esan dezakegu.

“Erreforma edo aldaketa honetan guztira Lanbide Heziketako 22 Familia aztertu dira” diosku Javier Mardones IDCko Lanbide Heziketako programaren koordinatzaileak. “Ondorioz, 139 titulazio edo Heziketa Ziklo zehaztu dira. Hauetatik 61 maila ertainekoak dira eta 78 goi mailakoak”. Beraz, 139 titulazio berri izanen dira hemendik aurrera Lanbide Heziketan eskainiko direnak bai EAEn eta baita Nafarroan ere. Amaierako taulan ikus

ditzakezenak dira titulazio berriok.

Hala ere, aurten ez dira guztiak aukeran izango. Taulan markaturik agertzen direnak dira aurten aukeran izango diren ikasketak. Pablo Eskibelek azaldu digunez, urtez urte Heziketa Ziklo gehiago jarriko dira martxan. “Heziketa Ziklo batzuk guztiz berriak dira eta beste batzuk, aldiz, aurreko Lanbide Heziketaren antzekoak. Ondorioz, errazagoa da azken hauek eskaintzea berriak baino. Horixe izan da batzuk lehenago garatu eta prestatzearen arrazoi nagusia”. Gauzak horrela, Heziketa Ziklo asko lehen zeuden ikasketa berdinak izango dira, baina izena aldatuta.

Gutziz berriak diren Heziketa Zikloek prestaketa lan handiagoa eskatzen dute azpiegitura, irakasleria eta beste hainbat arloren aldetik. Zentroentzat ere zailagoa da eta printzipioz irakasteko gai direnekin hasi dira. “Adibidez, Itsasoko eta Arrantzako Aktibitateak Familiako titulaziorik ez da eskainiko” Eskibelek dioenez. “Familia honetako ikastetxe bakarra dago, Pasaian, eta berau Nekazaritza eta Indus-

“Guk egiten dugun planteamendua enbor bakarrekoa da eta 16 urterekin, 18 urterekin eta 22 urterekin lan mundurako irteerak dituen” Pablo Eskibel

tria Sailaren pean dago. Zentro hau oraindik Lanbide Heziketako erreforma prozesuan sartu gabe dago eta momentuz lehenengo ikasketekin jarraitzen dute. “Gu geu Familia hau jartzekotan ginen Zumaian edo Mutrikun, baina oraingoz ez da posible izan”.

Beira eta Zeramikaren kasua desberdina da. Familia bezala bere curriculumaztertua eta osatua dago, baina EAEn ez dela jarriko iragarri digu Eskibelek. “Apenas dago lanik eta irtenbiderik arlo honetan. Eta bestetik, nahiko zaila da eskatzen duen azpiegitura edukitzea. Dena dela, enpresariak ikasketa horiek dituzten langileak eskatuko balituzte, orduan jarriko litzateke. Baina momentuz ez da horrelako eskaririk egon eta ez dago presaka ibili beharrik Familia honekin”.

Jesus Gonzalez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiko koordinatzaileak ere bi titulazio horiek Nafarroan ez direla ezarriko esan digu. “Nafarroan garrantzi gehien duten sektoreei lotutako zikloak garatu ditugu. Horrela, Itsasoko eta Arrantzako Aktibitateak Familia ez dugu ukitu ere egin, Beira eta Zeramika bezalaxe”.

Argi dago titulu guztiak ez direla jarriko aurten. Urtez urte gehituz joango dira, hori bai, eta Familia batzuetako titulazioak bestetakoak baino gehiago ugarituko dira. “Baina, hala ere, denak batera ez dira ezarriko. Ikastetxe batek urte pare batean Familia bateko bi titulazio eskaini ditzake, eta hurrengo urteetan beste bi desberdin”.

Aniztasun

Orain arte Lanbide Heziketa bost urteko iraupena zuten ikasketek osatzen zuten eta ikasketa bakoitzaren barruan ez zegoen aniztasunik. Hau da, Mekanika ikasten zuten guztiek, adibidez, gauza bera ikasten zuten. Orain, aldiz, hori aldatu egin da Javier Mardonesek azaltzen digun bezala. “Ikasketa bakoitzaren barruan espezialitate desberdinak daude, eta ikasle



bakoitzak gustuko duena aukeratzen du. Beraz, denek ez dute gauza bera egiten. Adibidez, Informatika Familiaren barruan bi ziklo desberdin zehaztu dira, eta Osasungintzari dagokionez hamabi". Familia bakoitzeko Ziklo kopurua ez da berdina, baina guztietan daude aukerak.

Zergatik horrelako aniztasuna eta eskaintza Familia bakoitzaren barruan? Mardonesek dioenez "Lanbide Heziketa aztertzerakoan merkatua ere aztertu dugu. Sektore bakoitzaren egoera zein den ikusi dugu, arlo bakoitzak zer eskatzen zuen, eta horri erantzuteko sortu dira hainbeste Ziklo. Azterketa eta behaketa honetan oso garrantzitsua izan da enpresariekin eta lantegiak eduki dugun harremana. Zuzenean beraiengana jo dugu euren eskakizunak, beharrak, hutsuneak eta gabeziak zein diren jakiteko. Nolako langileak behar eta eskatzen dituzten ikusi dugu eta horren arabera perfila osatzeko moldatu dugu Lanbide Heziketa. Merkatua eta irakaskuntza uztartu dira eta aurrerapauso handia izan da hori".

Aurrerapauso handia eta interesgarria da uztarketa hori, eta batez ere ikasleentzat. Enpresa eta lantegiak askotan postu zehazterako langileak eskatzen dituzte eta hori kontuan izan behar da. Horregatik, beraz, Heziketa Zikloen ugaritasuna eta titulazioen zehaztasuna.

Baina uztarketa hori ez da tituluak sortzeko soilik izan, euren ezarpena bidera-

tzeko ere bai. Izan ere, praktikak egitea beharrezkoa da, eta horretarako lantegiak behar dira. Ikasle bakoitzak enpresetan praktikak egiteko aukera izango du. "Ziklo bakoitzak Lan Zentroko Prestakuntza izeneko modulu bat dauka. Hau da, ikasle bakoitzak 400 ordu pasako ditu enpresa batean edo gehiagotan ikastetxean ikasitakoa praktikan jartzeko".

Nafarroan praktikak egiteko ordu kopurua ezberdina da sektorearen eta titulazioaren arabera. "Egoera nahiko anitza da. Gutxieneko kopurua 340 ordukoa da eta gehienekoa 740koa. 1.300 orduko Zikloetan 340 orduko praktikak egiten dira eta 2.000 ordukoetan 440" dio Jesus Gonzalezek. "Hala ere, 700 orduko praktikak egiten diren Zikloak badaude. Adibidez, Aktibitate Soziokulturalak Familiaren barruan Haur Hezkuntza eta Gizarteratzea titulazioak daude. Kasu hauetan, gelan egoera errealek erreproduzitzeko zailtasunak daude, ikasleekin edota baztertuekin egin behar dutelako lan eta horiek kalean daude, ez gelan. Horregatik, horrelako titulazioetan praktikak 700 ordukoak izaten dira. Ikasleek zentroan urtebete pasatzen dute 960 ordu eginez, eta 1.700 bitarteko gainontzeko orduak, hots, 740 ordu, lan zentroetan igarotzen dituzte". Praktikak egiteko beharrezkoa da aurretik modulu edo ikasgai guztiak gaintzea.

Gonzalezek azaldu digunez, enpresa edo lantokietara gaitasun batzuk garatzeko lan plan batekin joaten dira ikasleak. Enpresarekin ikasleak lanpostuan egin behar dituen aktibitateak zehazten dira. "Ez doaz orain arte bezala garrantzitsua enpresa ezagutu eta bertara egokitzea dela pentsatuz. Lehen ez zen asko zehazten ikaslearen zeregina edo programa. Orain, aldiz, ekintza guztiak zehaztuta dauden dokumentua dago, eta ondoren ikaslearen jarraipena egiteko kuarderno bat".

Kuarderno hau gainera tutorea eta enpresako arduradunaren artean osatzen da. Ebaluaketa tutoreak egiten du, baina enpresak bidaltzen dituen txostenak kontuan hartuz. Honek, besteak beste, ikaslearen puntualitatea, integrazteko gaitasuna eta egoera berriak konpontzeko gaitasuna baloratu behar ditu.

Praktiken garrantzia ikusirik eta derri gorrez egin behar direla aintzat harturik, titulazio bakoitza inguruko enpresen arabera kokatzen saiatu dira. Hau da, Osasuna Familiako Zikloak inguruan ospitale

bat duten zentroetan ezarri dira, eta ospitalerik ez dagoen ingurunean ez dira ezarri.

Nafarroan kasu batzuetan sektoreko elkarteekin jarri dira harremanetan. Esaterako, Eraikuntza arloan Eraikuntzako Lankide Elkarte dago. "Sindikatu eta enpresarioez osatua dago eta hauek beraien laguntza eman digute. Eraikuntzako lantaldean Elkarteko kide batek hartu du parte. Bere egitekoa enpresei aholkatzea eta langileen prestakuntza iraunkorra egitea izan dira". Aktibitate Fisikoak eta Kirol Aktibitateak Familiaren kasuan, Turismo arloarekin eta Nafarroako nekazal garapenerako eragileekin jarri dira harremanetan, Familia honi ibilbide turistikoa bultzatzeko norabidea eman baitiote.

Eskola mapa

Eskola Mapa osatzeko, prozedura desberdina eraman da aurrera EAEn. Ikastetxe pribatuaren kasuan beraien inizatiba izan da zein titulazio eskaini nahi dituzten esatea, eta baldintzak betetzen badiuzte eskaera onartzen zaie. Ikastetxe publikoaren kasuan, administrazioarekin egindako akordioa dago tartean. Eskibelek zera dio: "Eskola Mapa egin zenean zentro publiko guztiekin harremanetan jarri ginen eta informazioa eman genien (momentuan dauden lanpostuak zein diren, zein den euren eboluzioa, horren arabera zein tituluko eta familiak izango duten arakasta eta abar). Ikastetxe bakoitzak badaki zein esperientzia duen eta nolako irakasleria duen, eta horren arabera proposamen bat egin zuen. Kasu gehienetan akordio batera heldu gara eta zentro bakoitzak 2.000. urtera arte zein titulazio izango dituen aurreikusita dago".

Prozesu hau guztia aurrera eramateko bi gauza uztartu behar direla dio Eskibelek. "Alde batetik, merkatuak eskatzen eta eskaintzen duena. Eta bestetik, ikaslearen interesak, gogoak eta bokazioa. Bi gauzak lotu behar dira. Askotan ikasleek modan jartzen diren ikasketak aukeratzen dituzte eta guk aurretik badakigu gero ez dutela lanik izango, hortik lanposturik ez dela sortuko. Horregatik, hori pixkat bideratu egin behar da. Ikasleak hori ikasi nahi badu, eskubide osoa du, baina gutxienez lanposturik ez aurkitzeko perspektiba guztiak daudela esan behar zaio. Jakinarren gaineran jarri behar da".

Dena dela, denok dakigu merkatua

aldatu egiten dela. Eta irakaskuntza merkatuaren arabera moldatu bada orain, ezingo da ahaztu aldatzeko joera hori. "Halaxe da, orain egindako plangintza eta mapa ez dira behin betirako. Merkatuak berrikuntzak eta aldaketak eskatuko ditu. Beraz, etengabe erreparasatuz ibili behar dugu" dio Mardonesek.

Nafarroan lantaldeen eraketa aurreikusitako dute prozesuaren jarraipena eta kontrola eramateko. "Zentro bakoitzean lau edo bost irakaslez osatutako lantaldeak eratu-ko dira ziklo bakoitzaren ezarpeneko alderdi zehatzak aztertzeko. Alde batetik, metodologia, LOGSEren filosofia eta abar. Eta bestetik, alderdi profesional zehatzak eta teknika konketuak".

Heziketa Ziklo hauek bi mailatakoak izan daitezke: maila ertaina edo goi maila. Hasieran esan bezala, maila ertaineko 61 Heziketa Ziklo daude, eta goi mailakoak 76 dira Nafarroan eta 78 EAEn. Iraupenari dagokionez, 1.400, 1.700 eta 2.000 ordukoak dira. Horrez gain, badute beste desberdintasun bat. Maila ertainekoak ikasteko DBHO gaitutua eduki behar dela, eta goi mailakoak egiteko, aldiz, Batxilergoa. "Orain arte LH1 egin ondoren LH2 egin zitekeen, baina orain ezin da hori egin. Goi mailako Heziketa Zikloak egiteko derrigorrezkoa da Batxilergoa gaitututa izatea" argitzen digu Mardonesek. "Zergatik? Bada, Batxilergoan teoria mailako jakituria hartzen delako, ikasketa teorikoak egiten dira, eta hori jakitea beharrezkoa da goi mailako zikloak egiteko. Maila ertaineko zikloetan ez da teoria hori irakasten, beraz, ezin da hemendik pasa goi mailara". Dena dela, beste aukera bat ere aurreikusten da: sarbide froga bat. 20 urtetik gorako ikasleek froga hori gaitutuz gero, goi mailako heziketa zikloak egin ditzakete. Beraz, goi mailako zikloak ikasteko, Batxilergoa edo sarbide froga hau gaitutu behar dira.

Gauzak horrela, momentuz REM, 2. BBB eta LH2 egin dutenak erdi mailako Heziketa Zikloak egiteko aukeran izango dira. Eta UBI, LOGSEko Batxilergoa edo REM 2ko Batxilergoa ikasi dutenak goi mailako zikloak.

Baina LOGSE Batxilergoa erabat ezarzen denean eta LH zaharra, REM eta BBB desagertzen direnean enbor bakarra geldituko da Eskibelek dioenez. "Guk egiten dugun planteamendua enbor bakarrekoa da eta 16 urterekin, 18 urterekin eta 22 urterekin lan mundurako irteerak

G A I A

Lanbide Heziketa berria martxan da

dituena. 16 urterekin DBHO bukatu ondoren Batxilergoa edo erdi mailako Zikloak egiteko aukera dago. 18 urterekin Batxilergoa gaitutuz duenak unibertsitateko karrera edo goi mailako zikloa aukera dezake. Baina Lanbide Heziketa ez da Batxilergoaren alternatiba, ez dira bi adar, enbor bakarrekoko aukera desberdinak baizik".

Ikasketa hauek bukatu ostean, Lanbide Gaitasun Agiria eskuratuko dute ikasleek. Tituluaz gain, ikasleak landu dituen gaitasunak aurkezten dira agirian, beti ere lana eman dezakeenak ulertzeko moduan. Gaitasun profesionala eta dagokion erantzukizun eta autonomia gradua agertzen dira.

Lanbide Heziketako Zikloa amaitzen ez dutenek ez dute titulu hau jasotzen, baina bai agiria. Berau ikasi eta gaitutu dituzten moduluen egiaztatzea da. Horrela, orain arte ikasketak oso-osorik amaitzen ez zituztenak titulurik gabe gelditzen ziren bitartean, orain egin dituzten moduluen ziurtagiria behintzat jasoko dute.


Irakaskuntza Artistikoa ere bai

Heziketa Ziklo berriez gain, bada beste eskaintza bat ere: Irakaskuntza Artistikoa edo Diseinu eta Arte Plastikoetako Irakaskuntza. Ikasketa hauek LOGSEren barruan

"Sektore bakoitzaren egoera zein den ikusi dugu, arlo bakoitzak zer eskatzen zuen, eta horri erantzuteko sortu dira hainbeste Ziklo"

Javier
Mardones





Javier Mardones

CEI (IDC)ko Lanbide Heziketako programaren koordinatzailea

daude eta Lanbide Heziketa bezala antolatzen dira, hots, maila ertaineko eta goi mailako zikloetan eta urtebete edo biko iraupenekoak. Ziklo bakoitza moduluz osatua dago eta lanbideko egoerak eta lanak zuzentzeko gai izateko eduki teoriko eta praktikoak ditu. Normalean 1.600 eta 1.950 ordu izaten dituzte guztira.

Zein dira Lanbide Heziketa Zehatzeko Zikloekiko dituen ezberdintasunak?

1- Sarbide baldintzak ezberdinak dira. Hau da, Irakaskuntza Artistikoko Zikloak ikasi ahal izateko, gaitasun artistikoko froga gainditu behar da. Eskatzen diren ikasketek gain, frogari gaitasuna beharrezkoa da, baldin eta Batxilergo Artistikoa ikasten ez bada, orduan baliozkotu egiten baita.

2- Moduluak edo ikasgaiak gaitasun ondoren, praktikak egin behar dira enpresa, tailer edo bulegoren batean. Aukera hori, ordea, zailagoa da kasu honetan eta normalean 50 edo 75 orduko praktikak izan ohi dira.

3- Ikasketak ez dira praktikarekin amaitzen. Ondoren, amaierako lana (maila ertainean) edo amaierako proiektua (goi mailan) egin behar izaten da. Bertan lanbide horretan lan egiteko duen gaitasuna baduela erakutsi behar du ikasleak.

4- Ziklo hauetako curriculum eta perfilak askoz gutxiago garatuta daude. Arlo profesionaleko definizioa eta eginkizun esanguratsuenak zehaztuta daude, baina hortik aurrera ezer ere ez. Lanbide Heziketa Zehatzeko curriculumetan egiteko profesionalak, lanbidearen menperatzea, gauzatze kriterioak eta garatu beharreko eginkizunak zehaztuta daude. Irakaskun-

tza Artistikoan, ordea, ez.

Irakaskuntza Artistikoaren barruan 14 Familia izendatu dira Nafarroan. Hauen artean maila ertaineko 44 titulazio daude eta goi mailako 43. Lanbide artistiko tradizionalak zein berriak bildu dira bertan.

EAEn Irakaskuntza Artistikoak ez du Nafarroan adinako pisurik. Orain arte ez dira ikasketak hauek eskaini eta ez dago ohiturarik. Dena dela, Luis Otano IDCKo Irakaskuntza Artistikoko arduradunak azaldu digunez, ikasturte honetan zenbait titulazio eskainiko dira. "Gutxi izango dira, baina datorren ikasturtean gehituko dira". Dena dela, oraingoz ikasketak hauen curriculumak osatu gabe daude eta ikasturte honetan ekingo diote horri.

Ziklo berrien diseinu curriculurra

Oraingoz 114 Zikloren Oinarrizko Diseinu Curricularra zehaztu dutela azaldu digu Mardonesek. Oinarrizko Diseinu Curricularra Hezkuntza Sailak aurkezten duen dokumentua da. Bertan eskaini behar diren gutxienezko edukiak, bere antolaketarako agindua eta irakaskuntza jarduerarako orientazioak biltzen dira. Zentro bakoitzak iruditzen zaizkion berezitasunak gehitzeko aukera du eta bere irakasleriarekin irakaskuntza programazioa egiteko ere bai, baina betiere oinarrizko dokumentu hau errespetatuz.

Oinarrizko Diseinu Curricular hauek osatzeko hainbat gauza hartu direla kontuan dio Mardonesek. "Alde batetik, titulazio bakoitzak malgutasuna eta irekitasuna izatea hartu dugu kontuan zentro bakoitzak autonomia nahikoa izan dezan bere ingurune sozioproduktiboaren ezaugarrietara eta eskola bizitzara ongi molda-

tzeko. Autonomia hau izatea beharrezkoa da irakaskuntzaren kalitatea handiagoa izan dadin eta zentroek bere ingurunearen dinamizazioan parte har dezaten".

Bestetik, ikasketak hauekin ikasleek lortu behar duten gaitasun maila EAEko ezaugarrien arabera moldatuta edota zabaldua dago.

Mardonesek dioenez, azpimarratzekoa da Kalitatea eta Etengabeko Hobekuntza izeneko moduluaren ezarpena titulazio guztietan. "Prestakuntza honen bidez ikasleek "Kalitatea" lortzeko gaitasuna izatea lortu nahi da, ohitura profesionalak hartzea, segurtasuna eta abar".

Nafarroan curriculum eta perfilen osaketarako lantalde bereziak sortu dituzte. Familia bakoitzeko bat osatu dute, batez ere irakasleek eta baita sektoreko profesional edo aditu batez. Taldeon zeregina MEC edo minimoak ezartzen dituen dekretutik abiatuz, ikasketak horiek Nafarroara egokitzea izan da. Egokitze hori bi modutara eraman da aurrera. Alde batetik, modulu berezi bat osatuz Ziklo horiek ingurune sozioproduktibora molda daitezten. Eta bestetik, proiektu integratuko moduluak sortuz, hots, ikuspuntu orokor batez teknika ezberdinak bilduz. "Horrez gain, perfilean zenbait aldaketa ere egin dira, gaitasun profesional batzuk gehitzea, adibidez. Curriculumean, moduluetan eta ikasgaietan ere ekarpenak egin dira" gehitzen du Gonzalezek.

Lantalde honek txosten bat eratzen du bere proposamen eta iradokizunekin. Hemendik Lanbide Heziketako Goi Kontsejura bidaltzen da bere ikuspuntua eman, aldaketak egin eta onar dezan. Ondoren, Gobernuak sesiora pasatzen da.

Irakasleen prestakuntza

Prozesu honetan guztian ahaztu ezinezkoa da irakasleriaren prestakuntza eta beronen garrantzia. EAEn Ziklo bakoitza osatzen duten moduluak dagokien atal berezi bat osatu dute Oinarrizko Diseinu Curricularrean. Atal honetan irakasleriarentzako orientazioak daude moduluen programaketa eta ezarpenarako.

Hala ere hori ez da nahikoa izan irakasleak prestatzeko. "Berrikuntza eta aldaketa guztiekin batera irakasleriaren prestakuntza ere kontuan hartu dugu. GARATU programaren barnean ere Lanbide Heziketarako ikastaro bereziak antolatu dira eta irakasleak prestatuta daudela esango nuke. Zentroen azpiegitura ere eskakizu-

nen arabera moldatu da eta zentro bakoitzaren baliabideak eta aukerak aztertu dira, horren araberako ikasketak eskaintzeko aukera baitu”.

Nafarroan irakasleentzako ikastaroak antolatu dira Gonzalezek azaldu digunaren arabera. “Batez ere metodologia berria nola landu jakiteko, ebaluazioaren gaia aztertzeko eta antolaketa arazoak konpontzeko. Ikastaroak familiak antolatu dira eta espezialistek edota Erreformaren egitura eta jaiotza ondo ezagutzen duten pertsonak eskaini dituzte. Horrez gain, Hezkuntza Departamentuak eskaintzen dituen ikastaro zehatzak daude: soldadura, kontabilitatea, mikrobiologia...”. Administrazioa eta Merkataritza Familian, esaterako, hezkuntza mailan Merkataritza nahiko berria denez, Merkataritza Kamararekin jarri dira harremanetan. Eta honek, europar diruan oinarrituz irakasleriarentzako material didaktikoa diseinatu du.

“Ikastaro hauen helburua Erreforma ezartzerako irakasleriak zirriborroak ikusteko nahiko denbora edukitzea izan da, beraien iritzia emateko aukera izatea. Asteazkeneko departamentu didaktikoan elkartu eta curriculumeko gai konkretuak lantzeko zein prestakuntzarako egokiak zeritzaten ekintzak antolatzeko aukera izan dute”.

Euskararen presentzia

Titulazioen ugartasuna nabarmena den heinean, euskarazko eskaintza ez dela hain nabaria ikus daiteke. A ereduaren nagusitasuna mantentzen da Lanbide Heziketan, eta D ereduaren presentzia oraindik ere txikia da. Eskibelen iritzi euskararekin arazo gehiago daude Lanbide Heziketan beste Hezkuntza mailetan baino, baina duela hamar urteko egoerarekin konparatuz, asko aurreratu dela dio. Orain dela hamar urte Martuteneko ikastetxean bakarrik zegoela D eredu dio, eta orain asko zabaldu dela. “Esaterako, lehen Lanbide Heziketako zentroak zirenek, orain Batxilergo berria eta Heziketa Zikloak irakatsiko dituzte. Gipuzkoan ia denak Batxilergoa euskaraz irakasten hasiko dira eta Bizkaian ere dexente. Ikasketa hauek D ereduaren egin ostean Zikloetara pasatzen direnean, ordea, ikasleak bi edo hiru Ziklotan banatzen dira eta zailagoa da D ereduko taldea osatzea”.

Bestetik, irakasleriarekin orain arte ez dela arazorik izan komentatu digu Eskibelek, baina izango dela, OHOn izan den bezalaxe.


GAIA Lanbide Heziketa berria martxan da

Hizkuntzaren zailtasunak testugintza ere ukitzen du. “Batxilergoko liburuak euskaraz argitaratzea posible da, baina Lanbide Heziketakoak ez. Gaztelaniaz argitaratzea ere zaila da, argitaletxeek ez baitute kaleratzen. Madrilgo Ministeritzak zenbait argitaletxerekin akordio bat egin zuen guztien artean zerbait argitaratzeko, bakarka ezin baitzuten. Bada, kontuak atera guk zer arazo daukagun! Metala edo Administrazioan zerbait argitara dezakegu 400-500 ikasle egon daitezkeelako, baina zenbait titulutan 40-60 ikasle egongo dira guztira, eta D ereduaren 20”. Azken finean, irakasle bakoitzak prestatzen du bere materiala eta horregatik esaten da D ereduko irakasleek lan gehiago dutela.

Nafarroako egoera larriagoa da, dudarik gabe. Euskaraz ikas daitezke Heziketa Zikloak hiru soilik dira. Maila Ertainean Gestio Administrazioa eta Kontsumorako Ekipo Elektronikoak, eta Goi Mailan Administrazioa eta Finantzak.

Zailtasunak zailtasun, lehen urtea izanik, gauzak hobetzeko aukera irekita mantentzen da. Esperientziak eta eskarmentuak ere gauza berriak erakutsiko ditu eta horiei ere arreta jarri beharko zaie. Baina printzipioz, ikasturte berriarekin batera estreinatzerara doa EAEn Lanbide Heziketa berria.

“Nafarroan Diseinu eta Arte Plastikoko Irakaskuntza EAEn baino garatuago dago”



LANBIDE HEZIKETAKO TITULAZIOAK

Familia eta tituluak	Maila	Orduak	Familia eta tituluak
<p>Nekazal aktibitateak</p> <p>Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen antolaketa eta gestioa Baliabide natural eta paisajistikoaren antolaketa eta gestioa * Lorazaintza # Basogintza eta ingurunearen zainketa * # Abere-ustiapena Nekazal-ustiapen estentsiboa # Nekazal-ustiapen intentsiboa #</p>	<p>G.M. G.M. M.E. M.E. M.E. M.E.</p>	<p>2.000 2.000 2.000 2.000 2.000 2.000</p>	<p>Produktu elektronikoen garapena * # Ekipo eta instalazio elektronikokoak * # Kontsumorako ekipo elektronikokoak * #</p>
<p>Aktibitate fisikoak eta kirol aktibitateak</p> <p>Aktibitate fisikoaren eta kirol aktibitatearen suspertzailea * Ingurune naturaleko kirol aktibitatearen gidatzailea # Egokitze fisikoa</p>	<p>G.M. M.E. G.M.</p>	<p>2.000 1.400 2.000</p>	<p>Fabrikazio mekanikoa</p> <p>Metalezko-eraikuntzak * Soldadura eta galdaragintza * # Proiektu mekanikoen garapena * # Mekanizazio bidezko ekoizpena * # Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko ekoizpena Galdaketa Mekanizazioa * # Tratamendu termikoak eta gainazalekoak</p>
<p>Itsasoko eta arrantzako aktibitateak</p> <p>Nabigazioa, arrantza eta itsas garraioa Itsasuntziko makinen eta instalazioaren kontrola eta gainbegiraketa Ekoizpen urtarra Arrantza eta itsas garraioa Itsasuntziko makinen eta instalazioaren lana, kontrola eta gainbegiraketa Laborantza urtarreko lanak Sakonera erdiko urpeko igeriketa</p>	<p>G.M. G.M. G.M. M.E. M.E. M.E.</p>	<p>2.000 2.000 2.000 2.000 2.000 1.700 1.400</p>	<p>Ostalaritza eta turismoa</p> <p>Sukaldaritza Ostalutua Bidai-agentziak * Informazio eta komertzializazio turistikoak * Animazio turistikoa Sukaldaritza * # Jatetxe eta tabernako zerbitzuak * # Gozogintza eta okintza *</p>
<p>Administrazioa</p> <p>Administrazioa eta finantzak * # Idazkaritza * # Gestio administratiboa * #</p>	<p>G.M. G.M. M.E.</p>	<p>2.000 1.300 1.300</p>	<p>Irudi pertsonala</p> <p>Estetika * Irudi pertsonaleko aholkularitza * Ileanpiketa * # Estetika pertsonal apaingarria * # Karakterizazioa</p>
<p>Arte Grafikoak</p> <p>Diseinua eta ekoizpen editoriala * Arte Grafikoetako industrietako ekoizpena Arte Grafikoetako aurreinprimaketa * # Arte Grafikoetako inprimaketa * Papera eta kartoiaren kuadernazioa eta manipulazioa</p>	<p>G.M. G.M. M.E. M.E. M.E.</p>	<p>2.000 2.000 2.000 1.400 1.400</p>	<p>Elikagai-industria</p> <p>Elikagai-industria * Landare, haragi eta arrain kontserbagintza * Olio eta zukuen lantzea Esnekien lantzea Ardoen eta beste edarien lantzea * Hiltegia eta harategia-txarkutegia * Errota eta zereal-industria</p>
<p>Merkataritza eta marketina</p> <p>Nazioarteko merkataritza * # Kontsumitzailearentzako zerbitzuak * # Merkatal gestioa eta marketina * # Garraioaren gestioa * # Merkataritza * #</p>	<p>G.M. G.M. G.M. G.M. M.E.</p>	<p>2.000 1.400 1.400 2.000 1.400</p>	<p>Informatika</p> <p>Sistema informatikoen administrazioa * # Aplikazio informatikoen garapena * #</p>
<p>Komunikazioa, Irudia eta Soinua</p> <p>Ikus-entzunezkoen, irratien eta ikuskizunen ekoizpena Soinua Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazioa * Irudia Irudiaren laborategia *</p>	<p>G.M. G.M. G.M. G.M. M.E.</p>	<p>2.000 2.000 2.000 2.000 1.400</p>	<p>Egurra eta altzaria</p> <p>Altzarigintza # Altzariaren eta aroztegiko produktuen garapena Egurraren eta altzariaren ekoizpena Egurraren eta kortxoaren eraldaketa Altzariaren eta aroztegiaren ekoizpena industrialak * Altzariaren eta aroztegiko instalazioaren neurriko</p>
<p>Eraikuntza eta lan zibila</p> <p>Eraikuntza-lanen burutzea eta planak * Eraikuntza proiektuen garapena eta gauzatzea * Hirigintza-proiektuen eta operazio topografikoen garapena Igeltseritza lanak * Hormigoizko lanak * Eraikuntzako akaberak * # Eraikuntzako makineriaren operazioa eta gainbegiraketa</p>	<p>G.M. G.M. G.M. M.E. M.E. M.E. M.E.</p>	<p>1.700 2.000 2.000 2.000 2.000 2.000 2.000</p>	<p>Ibilgailu autopropulsatuen gainbegiraketa</p> <p>Automobilgintza * Ibilgailuen elektromekanika * # Karrozeria * # Gainbegiraketa aeromekanikoa Lanabesen gainbegiraketa</p>
<p>Elektrizitatea eta Elektronika</p> <p>Instalazio elektroteknikoak * # Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak * # Telekomunikazio eta informatika sistemak * #</p>	<p>G.M. G.M. G.M.</p>	<p>2.000 2.000 2.000</p>	<p>Ekoizpenaren gainbegiraketa eta</p> <p>Ekipo industrialaren gainbegiraketa * # Instalazio fluidoaren, termikoen eta mantenuko proiektuen garapena *</p>

G.M.: Goiko Maila

M.E.: Maila

	Maila	Orduak	Familia eta tituluak	Maila	Orduak
	G.M. M.E. M.E.	2.000 2.000 2.000	Eraikinen instalazioen gainbegiraketa, muntaia eta garapena * Hotz, girotze eta bero instalazioen produkzioaren muntaia eta mantenua * # Mantenu elektromekanikorako instalazioa, makineria eta lerroen eramatea * # Trenbideen gainbegiraketa	G.M. M.E. M.E.	2.000 2.000 2.000
	G.M. M.E. G.M. G.M. G.M. M.E. M.E. M.E.	2.000 2.000 2.000 2.000 1.400 1.400 2.000 1.400	Kimika Prozesu kimikoko industriak Pasta eta paperaren prozesu industrialak * Botika-produktuen eta antzekoen ekoizpena Analisia eta kontrola * Ingurugiro kimika * Plastikoak eta kautxoak * Planta kimikoko prozesuaren operazioak * Pasta eta paperaren prozesuaren operazioak * Botika-produktuen ekoizpenaren operazioak Laborategia * # Plastikoen eta kautxoaren eraldaketa operazioak	G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. M.E. M.E. M.E. M.E.	1.400 1.400 1.400 2.000 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400
	G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. M.E. M.E. M.E.	2.000 1.400 1.400 1.400 1.400 2.000 1.400 1.400	Osasuna Hortz-protesia Anatomia patologikoa eta zitologia Aho- eta hotz-garbiketa * Diagnostiko klinikoaren laborategia * Osasun-dokumentazioa * # Ingurugiro osasuna # Radioterapia Diagnostikorako irudia Ortopotesikoa Dietetika * Audioprotesia Optika eta begi-protesia Erizantzako zainketa laguntzailea * # Farmazia * #	G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. M.E. M.E.	2.000 2.000 1.400 2.000 1.400 2.000 1.700 1.700 2.000 2.000 2.000 1.400 1.300
	G.M. G.M. M.E. M.E. M.E. M.E. M.E.	2.000 1.700 2.000 1.400 2.000 1.400 1.400	Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatekoak Haur Hezkuntza * # Gizarteratzea * # Animazio soziokulturala * Zeinuen hizkuntzaren interpretazioa	G.M. G.M. G.M. G.M.	2.000 1.700 1.700 2.000
	G.M. G.M.	2.000 2.000	Ehungintza, jantzigintza eta larrua Iruitearen eta zulo-bordatuaren ehundegiaren prozesuak Puntuzko ehundegiaren prozesuak Jantzigintza industrialaren prozesuak Patroiak Ehungintzaren goresteko prozesuak Zurratzeak Iruiteko eta zulo-bordatuak ehuntzeko ekoizpena Puntuzko ehundegiaren ekoizpena Jantzigintza * Oinetakoak eta larrukigintza Ehuntzaren goreste operazioak	G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. G.M. M.E. M.E. M.E. M.E. M.E.	1.400 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400 1.400
ekoizpena * #	G.M. G.M. G.M. G.M. M.E. M.E. M.E.	2.000 2.000 2.000 2.000 1.300 1.400 2.000			
begiraketa	G.M. M.E. M.E. G.M. G.M.	2.000 2.000 2.000 2.000 2.000			
zerbitzuak	G.M.	2.000	Beira eta zeramika Zeramika-lanen garapena eta ekoizpena Beirazko produktuen ekoizpena eta eraldaketa Zeramika-lanen ekoizpen-operazioak Beiraren eta eraldatuaren ekoizpen-operazioak	G.M. G.M. M.E. M.E.	2.000 1.400 1.400 1.400
instalazioen	G.M. G.M. G.M.	2.000 2.000 2.000	Eraikuntzarako materialen ekoizpen-operazioak (bere bideragarritasuna zalantzan dago)	M.E.	

Ertaina #: Nafarroan ezarriko direnak. *: EAEn ezarriko direnak.

elkarriketa

BEGOÑA SALAS

“


*Hezkuntza gaur egun dis-
kriminazioak ezabatzeko lehen
mailako eragileztat hartzen da*

”



Begoña SALAS

Generoari eta Ekintza Positiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Batzarra burutu zen Donostian ekainaren hasieran Emakunde antolatutako helburua arlo ezberdinetako politika publikoen norabidea eta estrategiak aztertzea zen. Gure arloari dagokionez, besteak beste, Begoña Salasen hitzaldia entzuteko aukera izan zen.



Hezkidetzak ikastetxe hezkuntza proiektuetan

Begoña Salas Pedagogian lizentziatua da eta oso ezaguna da irakasleriaren prestakuntzako eta hezkidetzako espezialista bezala. Hezkidetzarako irakasleriaren Prestakuntza Iraunkorrekoko programak eraman ditu aurrera Txilen, Kolonbian, Ekuadorren eta Estatu Espainiarreko hainbat Komunitate Autonomotan. EAEn Ikastetxeen Hezkuntza eta Curriculum Proiektuak egiteko plan bat garatzen ari da Emakunderekin batera. Proiektu hauen norabideaz eta gaur egungo heziketaz Begoñak duen ikuspuntua bildu dugu hurrengo orrialdeetan.

Zure hitzaldiaren izenburua honakoa izan da: "Paradigma aldatuz: hezkidetzak identitate pertsonalaren garapenerako". Zer aztertu edo azaldu duzu?

Gizarteko eta hezkuntzako paradigma azaltzen saiatu naiz. Paradigma buruan ditugun gauzek osatzen dute. Gauza hauen bidez ikusten dugu mundua eta erlazioak ere horien arabera egiten ditugu. Hau da, gure erreferentzia da.

Beraz, orain arte paradigma bat eduki dugu, erreferentzia bat, eta eredu hori aldatzeko unea iritsi da, paradigmaz aldatu behar dugu.

Zergatik aldatu behar dugu paradigma?

Hezkidetzak eta aukera berdintasuna baldin badira gure helburuak, hots, emakume eta gizonek aukera berdinarik izatea, beharrezkoa da orain arte indarrean izan den paradigma alde batera uztea.

Nolakoa izan da bada, orain arteko paradigma?

Paradigma akademizista izan da, sistema patriarkalaren zerbitzuan dagoena eta bere helburua boterea mantentzea izan da. Paradigma honek balore sozial hierarkikoak eta elkartasunik gabek inposatzen ditu. Esate baterako: lehia-kortasuna, biolentzia, nagusitasuna, autoritarismoa, nonahikotasuna, menpekotasuna...

Balore hauek gizartean islatzen dira. Adibidez, titulazio asko dituen pertsona gutxiago dituen baina eskala sozial altuagoan dagoela suposatzen da.

Eta zein isla du hezkuntzan zehazki?

Hezkuntza Sistemak paradigma akademizista inposatu du. Honen ondorioz curriculum homoginoa, androzentrikoa eta etnozentrakoa osatu da. Sistemak onartutako zientzian eta botere akademikoak lejitimatutako edukietan oinarritzen da. Autoritate akademikoak jakituria mailak zehazten ditu eta helburua gizarteko arazoei irtenbidea emateko erantzunak ikastea da, eta ez indarrean dagoen paradigma aztertzea eta eztabaidatzea.

Ezaugarri hauek benetan gure gizartean eta hezkuntzan txertaturik daudela ikusten dugu. Nola iritsi gara horraino? Nola barneratu dugu sistema hau?

Pertsona bakoitzak bere egitura mentalaren arabera barneratzen du eta hori bakoitzaren inguruneak mugatzen du. Hori dela eta, oso garrantzitsua da bakoitzak zein ingurunean dagoen ikustea. Pertsona bat paradigma sexista, patriarkal eta androzentriko batean

murgildurik baldin badago, erabat logikoa da hizkera sexista erabiltzea eta emakumea gizonezkoa baino gutxiago dela ustea.

Horregatik, dauzkagun aurreiritziek gure pentsamendua eta jokaera baldintzatzen dituzte. Dauzkagun aurreiritziak sinesmen eta jasotako mezuen arabera osatzen ditugu eta gure burmuinean akats kontzeptual garrantzitsuak sortzen dira. Akats kontzeptual horien arabera interpretatutako ditugu mundua eta erlazioak.

Zein dira akats kontzeptual horiek?

Oinarrizko lau akats aipatuko nituzke nik:

1- Emakumea gizonaren azpian naturaren oinarrizko lege batengatik dagoela ustea. Hau da, determinismo biologikoan sineste.

2- Izatearekin edo existentziarekin daukagun borroka konpetitiboa da eta horrek, sortzen dugun indarkeria justifikatzen du, gainera. Gizakiok elkarlana behar dugu eta ez elkar hiltzea.

3- Giza gopurtza makina bat dela ustea. Hau mendebaldeko medikuntzaren paradigmaren eraginez sortu da. Medikuntza honek gopurtza ez du bere osotasunean aztertzen, zatika baizik. Besoko mina baldin badugu, besoa sendatzen digu, baina era berean gibela txartu. Gainera, fisikoak soilik hartzen du kontuan, eta alde emozionala ez du aintzat hartzen. Honek izugarriko eragina izan du gizaterian.

4- Hazkunde ekonomiko eta teknologikoa mugagabeak direlako ustea. Honek ondorio larriak ekarri ditu eta

BEGOÑA SALAS



**“Nortasu-
naren edo
esentziaren
paradigma
pertsona den
bezala
onartzetik
abiatzen
da”**

gudak eta beste hainbat gauza justifikatu izan ditu.

Kontzeptu hauek osatzen dute gaur egun indarrean dagoen paradigma patriarkala. Akats hauen guztien artean ari gara mugitzen. Eta noski, paradigma honek hezkuntzaren paradigman eragin zuzena du.

Argi dago paradigmatik aldatu behar dugula. Baina nolako aldaketa proposatzen duzu zuk?

Nortasunaren edo esentziaren paradigma da proposatzen dudana. Paradigma hau pertsona den bezala onartzetik abiatzen da, hori da gakoa. Orain arte paradigma patriarkala nortasun kolektiboetan eta inposatutako balore kolektiboetan oinarrituta da. Hau da, pertsona ez zen aintzat hartzen, baizik eta zenbat karrera ikasi dituen, neska edo mutila den, ezkontuta dagoen ala ez... Gizarte patriarkalak laukitxoak sortzen ditu eta pertsonak laukitxo horietan sartzen ditu. Laukitxo batzuk beste batzuek baino gehiago balio dute eta horrela sortzen dira mailak eta klaseak.

Guk, ordea, alderantzizkoa planteatzen dugu. Pertsona den bezala kontsideratzen dugu, den bezala onartzen dugu. Horregatik deitzen diogu nortasunaren edo esentziaren paradigma.

Aldaketa gizarte osoan egin beharrekoa da. Zenbateko eragina, pisua edo erantzukizuna du hezkuntzak?

Gaur egun hezkuntza lehen mailako eragile sozializat hartzen da zeregin honetan. Hau da, sexu-genero, maila sozial, jatorri etniko eta abarren arabera dauden diskriminazioak ezabatzeke lehen mailako eragiletzat hartzen da hezkuntza.

Helburu hau aintzat harturik, beharrezkoa da “hezitzea” bermatzen duten ikuspegi pedagogiko, psikologiko, soziologiko eta epistemologiko ezberdinak kritikoki errepasatzea.

Asmo horrekin hausnarketa anitz egin dira maila teorikoan unibertitatean eta maila praktikoan ikastetxe askotan. Indarrean dagoen sistema patriarkalaren ondorioak ikusita, aipatu duzun paradigma berria sortu da. Baina zer da zehazki honek bultzatzen duena?

Nortasun pertsonalaren zerbitzura dago. Paradigma berri honen benetako iraultza pertsonen barruko jakiturian eta boterearen eta autoritate pertsonalaren erabileran sinestean dago. Bitartean paradigma menperatzaileak ejerzitoak sortzen, armak egiten eta hierarkia sozialak eratzen jarraitzen du determinismo biologikoan eta sozialean oinarrituz.

Paradigma berriak balore pertsonal solidarioak bultzatzen ditu. Harremanak elkarlanean, elkarrenganako errespetuan, autoritate pertsonalean eta protagonismoan oinarrituta daude. Eta jakituria intuitiboan oinarritutako adimen globala garatzen du.

Zer esan nahi duzu adimen globala aipatzean?

Normalean paradigma akademizista adimen akademizista bultzatzen da, zeinak datuak eta kontzeptuak pilatzeko balio duen. “Ba al dakizu hau denbora gutxienean eta azkartasun handienera?” galdetzen da. Baldin badakizu benetan azkarra zara, eta ez baldin badakizu alferra.

Adimen globala beste gauza bat da. Bizitzako edozein egoeratan, bai maila pertsonalean, sozialean zein beste edozein mailatan, erantzuna emateko baliagarria den adimena da.

Beraz, zein da paradigma berri honen helburua?

Ikasleriari bere baliabide eta estrategia propioak edukitzen laguntzea bere burua interpretatzen jakin dezan. Eta era berean, mundua interpretatzeko eta mundu horrekin arduratsu eta elkartzunean bizitzeko gai izan dadila. Paradigma honen helburua pertsona bakoitzari kultura sexista menperatzaileak ezarritako mugak gainditzeko laguntza ematea da. Horrela, pertsona bakoitzak bere burua autoritatez eta protagonismoz beteta ikusiko du, bere bizitzaren norabideaz jabetuz, bere nortasun propioa garatuz eta bere bizitzako proiektuaz arduratuz.

Nola gauzatu dezakegu hori gure eguneroko lanean? Zein abiapuntu hartu behar ditugu kontuan?

Lehenengo eta behin, abiapuntu berri bat hartu behar dugu. Hau da, pertsonaren garapen globala lortu behar dugu.

Horretarako, jakituria, maitasuna, harmonia, boterea eta autoritatearen balioa errekonozitu behar ditugu. Pertsona guztiak besteegandik bereizten duten oinarritzko zati batekin jaiotzen dira. Hori da gure abiapuntua.

Ondoren, hazkunde integrala bultzatzeko bost eremutan oinarritutako eredu bat pentsatu eta osatu dugu. Burua, gorputza, emozioa, nortasuna eta eremu soziala. Eredu honek gatazkak alde batera uzten ditu eta konpromezu pertsonala, kolektiboa eta soziala irakasten ditu.

Ikastetxearen antolaketa eta gestioan ere gauza berriak proposatzen ditu: zuzendaritza konpartituan, elkarlanean eta elkarrenganako errespetuan eta erantzukizunean oinarritzea.

Nola lortzen da hau guztia? Bada, ikasketa autonomoa eta funtzionala aplikatuz, hots, ikasitakoa eguneroko bizitzan praktikan jarritz. Honek zera suposatzen du: pertsona dela gure abiapuntua eta pertsona horrekin goazela leku guztietara; etxera, lanera, lagunengana, bikotearengana...

Gure eguneroko lan egiteko modua aldatu egiten da orduan, eta baita irakasteko metodoa ere. Nola irakatsi behar dugu? Zein metodo jarraitu behar dugu?

Paradigma honek giza garapena berreratzen du Hezkuntzan. Hasteko, ez dugu liburuetako edukia ikasleen buruan sartu behar. Gai bakoitzeko oinarritzko ideiak laburtzen saiatu behar dugu eta hori ikaskuntza autonomoan oinarrituz transmititu ikasleei. Hau da, hipotesiak planteatuz, ikertuz, hitzaldiak emanez... eta azken pausoa ikasle bakoitzak dakiena besteei azaltzea da. Hau oso garrantzitsua da. Benetan kontatu behar denean ikasten da. Orduan konturatzen da norbera zer den eta zenbat dakien.

Orain arte, hezkuntzaren helburua ezagutza transmititzea zenean, irakasleok azaltzen genituen gauzak eta ondoren azterketak jarri. Metodo honekin ikasleak ez du ezer ikasten.

Hala ere, ikasketa ez da gauzak kontatzearekin bukatzen. Ikasitako hori praktikan jarri behar da eguneroko bizitzan. Hori da benetan balio duena. Alferriakoa da gauza asko ikastea gero praktikan jartzen ez bada. Praktikan jartzeko modu bat ikasitako hori lagunekin, etxean, auzoan eta abar aplikatzea da.

Egoera horretara heltzeko aldaketak ematen hasi behar dugu. Baina zein laguntza eduki dezakegu aurrera egiteko?

Lehenengo eta behin, horrelako aldaketa bortitza batek krisia sortzen duela pentsatu behar dugu, krisi horrek sufritzen duela sortuko duela eta sufritzen duela hori pasa egin behar dugula. Hori gainditutakoan, noski, zoragarria izango da.

Bestetik, legez baliatu behar dugu, esaten dugun guztia babesten duelako. Planteatu dugun guztia legean oinarrituta dago eta guk erreparasatu eta gauzak zehaztu besterik ez dugu egin. Daukagun lege berria, LOGSE, ikuspegi honek iraultzailea da, eta horren babesean egin behar dugu lan.

Bestetik, antolatu egin behar dugu. Taldetan bildu eta antolaketa sareak sor ditzakegu egiten ari garen lana defendatzeko eta zabaltzeko. Sistemarekiko eredu alternatiboa da geurea, eta beraz, laguntza sare bat osatu behar dugu.

Material ugari daukagu gure eskura eta hori erabili behar dugu.

Eta nola ez, ereduak sortu behar ditugu eta ez gure artean haserretu. Bakoitzak dituen ideiak praktikan jartzen lagundu behar dugu eta ez oztopatu.

Izerdi asko bota dugu gauden lekura iristeko, baina Hezkuntza Sistema bere osotasunean erreparasatu dugu, proposamen alternatiboak ditugu etapa, ziklo eta maila guztietarako, hezkidetzan oinarritutako ibilbide akademiko zehatza...

Beraz, animatu egin behar dugu. Boterea daukagula jakin behar da eta botere hori zein autoritate pertsonala erabili behar ditugu. Hori da gakoa.

LOGSE legea aipatu duzunean, iraultzailea dela esan duzu. Zergatik kalifikatzen duzu horrela?

Niretzat benetan aldaketa sakona suposatzen duelako. Pertsona ekintza guztien erdigunean jartzen du eta den bezala onartzen du. Hau garapen itzela da eta aldaketa erradikala suposatzen du. Paradigma aldatzen du erabat. Gure erreferentzia pertsona da, eta ez sistema menperatzailea eta inposatutako balore sozialak.

Beraz, nik badakit pertsona batengana hurbiltzen naizenean besteengandik bereizten duten ezaugarriak dituela eta bere nortasunari lotuta daudela.



Horregatik kontsideratzen dut lege iraultzailea, hortik abiatzen delako, pertsonaren garapen integraletik.

Beste gauza bat legearen ezarpena da eta puntu horretan oso adi egon behar dugu. Legea praktikan jartzeko araudi bat egin behar da eta hor dago tranpa. Ezin da zaharkitzen den araudia ezarri. Horregatik, supermerkatuan bezalaxe, araudiaren iraungitze-data ikusi behar dugu. Hau jarrera aktiboa da. Izan ere, kehatzeko garaia pasa zen eta ekintza zuzenaren garaia iritsi da. Behar duguna eskatu behar dugu, beldurrik gabe eta gure nortasuna, pertsona, soinean hartuta.

Dudarik gabe, irakasleok prestakuntza bat behar dugu aldaketa hau egiteko. Nolako izan behar du prestakuntza horrek zure ustetan?

Irakasleriaren prestakuntza ez da ezagutza androzentrikoak pilatzen dituen prestakuntza teorikoa. Hori lehen geneukana zen. Irakasleok ikasleak bezalaxe eraldatu egin behar dugu. Irakasleriak gaitu egin behar du. Izan ere orain, ezagutza transmititzen duen pertsona izan beharrean pertsona izan behar duen baldin bada, bere funtzioa aldatu egin da erabat. Ez du zerikusirik aurrekoarekin.

BEGOÑA SALAS

e

“*Paradigma honen helburua pertsona bakoitzari kultura sexista menperatzailerak ezarritako mugak gainditzeko laguntza ematea da*”

Beraz, prestakuntza giza garapenaren autoformakuntza da, pertsonala. Autoritate pertsonala praktikan jartzean datza, eta ez autoritate soziala. Ikasleek bizi-tzen duten bera bizi behar dugu irakasleok. Eta helburuak berdinak dira: maila pertsonalaren gaitasuna, bai soziala eta bai akademikoa. Irakasleok ikasleei beraien ikaskuntzan laguntzen diegun gidariak gara.

Prestakuntza honekin, markatu dugun bideari ekiteko arropak eta tresnak badauzkagu. Orain, jantzi eta oinez has-tea falta zaigu.

Orduan, irakasleok zein neurritan gara ereduak?

Geu garen bezalakoak garen neurrian. Alegia, transmititzen ari zaren eredu momentu guztietan zu zeu zarela erakustea da. Akatsak egiten dituzula eta akats horietatik ikasi egiten duzula erakustea. Zure bizimodua da erreferentzia.

Baina irakasleon aldaketa hau nola lortu aurretik beste aldaketarik ez baldin badago? Nola lor dezakegu hori irakasle eskoletako irakaskuntza metodoa aldatzen ez bada? Daukagun errealitatea ikusita zaila da aldatzea.

Bai, zaila da, baina edozein garaitan lor dezakegu aldaketa. Aldatzeko gogoa da behar duguna, eta tresna egokiak. Ez dugu kexatu soilik egin behar, ekintzeta pasa baizik. Besteak beste, sentimendu eta emozioekin lan egitea ere oso garrantzitsua da. Hezkuntza ez hierarkikoa, positiboa eta ez konparatiboa sortu behar dugu. Bukatu dira konparaketak, pertsona bakoitza bat da eta ezin da besteekin konparatu.

Baina eredu hobe baten bila bagoaz, zerbaitekin konparatu beharko dugu. Hobetzeko beti konparatzen dugu txarragoa den horrekin, ezta?

Bai, baina orain arte eduki dugun konparaketan gizonezkoa izan da erreferentzia. Orain gure lana erreferentzia horiek eta dauzkagun ereduak alde batera uztean datza. Hezkuntza baldintza aproposak dauzkagu gizateriarengandik espero den hezkuntza jauzi hori emateko. 2.000. urtera pasako gara eta erantzukizun handiko aldaketa da eman behar duguna. Helburuak zehaztu ditugu eta lortu nahi ditugun ondorioak ere bai. Beraz, horiek lortzeko ekintza konkretuak egiteko unea iritsi da.



hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

31

Mahai-
jokoetan
euskaraz aritzeko
proposamena

Mahai-jokoetan euskaraz aritzeko proposamena



Santi ANGULO
Lezoko Herri Eskolako Irakaslea

Hirietan edo herri handietako kaleetan ibiliz, haurrak futbolean edo makina moderno horiekin ez bada, beste jolasetan ez direla aritzen ikus dezakegu. Gainera, esparru honetan ere gaztelania nagusitzen ari da,

edo haxe da niri iruditzen zaidana behintzat. Herri txikietan ez dakit gauza bera gertatzen ari ote den. Badirudi bizi moderno honetan joko eta jolas zahar eta tradizionalak, eta hauekin batera euskara ere, galtzen ari direla.

Eskolan ere antzeko zerbait gertatzen dela deritzot. Areago, gure ikasleak agian edozein arlotako edukiez euskaraz jabetuko dira, baina jolasetan askok eta askok gaztelaniara jotzen dute, ez baitakite euskaraz jolasten. Egoera honen zergatia bi alderditan aurki daiteke: alde batetik, eskolan askotan haurren alde ludikoa ahaztu egiten dugu eta, bestetik, komunikabideen hizkuntza nagusia gaztelania izanik, ez da harritzekoa hori gertatzea.

Irakasleok buru-belarri ahalegintzen gara edukiak euskaraz ikas ditzaten, baina jolasgaraietan gaztelaniaz jo eta ke. Nire ustez, haurrentzat nagusi diren gaietako hizkuntza ez dugu behar bezala lantzen. Haurrek kalean ez dute matematikaz hitz egiten eta bere jolasez, harremanez eta abarrez bai, ordea. Baina, hizkuntza hau ez dugu jorratzen eta hau diodanean zera esan nahi dut: kontua ez da gela barruan, noizean behin, jolas edo kantaren bat lantzea, kaleko bizitza gelara sartzea baizik. Bestelako edukiak lantzen eta ikasten ari diren bitartean, bere interesei eta beharrei dagozkien alderdiak ere lantzean datza arazoa. Baliteke jolas zaharrak eta tradizionalak galtzea, baina haurren alderdi ludikoa ez da inoiz galduko. Itxuraz eta baliabidez aldatuko da eta gure eginkizuna jolas berrietara moldatzea da, eta euskara ere moldatu beharko dugu.

Dena den, nire lanaren helburua ez da alderdi teorikoaz aritzea, mahai-jolas arruntetan euskaraz aritzeko proposamen praktiko bat eskaintzea baizik, eztabaidarako proposamena, jakina.

Hiztegi orokorra

Ondoko lerroetan euskaldunok gaur egungo joko arruntenetan aritzeko erabiltzen ditugun zenbait esapide, hitz eta izen azaltzen dira.

Jolasean, jokoan aritu, ibili, jardun...	Ezin da egon aditza erabili, jokatzek mugimendua eskatzen baitu eta egon-ek egoera adierazten du.
Ausazko jokoak	Probabilitate hutsaren arabera egiten den jokoak.
Huts ala bete	Bi eskuetako batean zerbait jarri egiten den zozketan esaten da.
Ogi ala ardo	Txanpon, harri edo beste zerbait airera botaz eta lurrera erortzen utziz egiten den zozketan esaten da.
Zotz egin	Garai batean zotzez egiten zen zozketa, gaur egun zozketatu.
Zer dela eta zer dela...	Asmakizunen hasieran esaten da.
Baietz... / Ezetz... (irabazi, sartu...)	Apustuetan edota zerbait egin nahian erabiltzen da, aditza infinitiboan jarri.
Tati egin	Haurrek eskaini ondoren ematen ez dutenean.
Norgehiagoka	Lehian, txapelketan ari direlarik esaten da.
Buruz buru	Bata bestearen aurka ari direnean esaten da.
Bitsa / Pagotxa / Zorte ona	Hau pagotxa, hau! Hori bitsa, hori!
Balbea / Zorte txarra	Hau balbea, hau! Hori balbea, hori!
Hiruko lerroa, lauko lerroa	Hiruzpalau fitxa lerro berean eta jarraian jartzean datza joko batzuen helburua.
Jana / harrapatua	Beste jokalariairen pieza kanporatzea.
Jokaldia / partidua jan (dugu, dute...)	Jokaldia edo partidua irabazi.
(Jokaldia/partidua) jana daukat, dauka	Irabaztear dagoelarik erabiltzen da.
Airez aire eraman (du, eramango duzu)	Aise, erraz irabazten denean esaten da.
Nagusi	Irabazle.
Zuek adinean gelditu (gara...)	Berdin geratu, berdindu.
Mendean eduki (dauzkat, nauka...)	Batek aurkakoak bere menpe ditutenean.
Menderatu (dituzu.../ gaituzte...)	Aurkakoak garaitu, irabazi.
Aurrea hartu (diegu...)	Aurkakoaren aurretik jarri.
Aldea atera (digute...)	Batek aurkakoari diferentzia atera.
Marka ondu / marka hautsi	Marka hobea lortu.
Amore eman (amore ematen dut...)	Joko batean edo asmakizun batean gehiago ezin denean esaten da.
Etsi (etsi egiten dut...)	
Ase (ase naiz...)	
Purrukatu (naute...)	Jokoetan lur jota utzi, jipoi ederra hartu.



Kartak

Kartak aspaldidanik ezagutzen ditugu eta gure arteko lagunak usu ikusten ditugu kartetan jokatzeko. Eskolan jarduteko zenbait joko egoki ditugu: eskoba (edo hamabostekoa), txintxoia, seiko urrea eta abar. Lehenean aritzean batuketa eta kenketarako kalkulua lantzen da; beste bietan, berriz, segidak eta sailak lantzen dira. Joko hauetan hasi baino lehen, kartetan aritzeko ondoko hiztegia ikastea komenigarria da. Euskaldunok kartetan jarduteko erabiltzen ditugun hitzak geure senarekin bat datoz, karten izenean, esaterako, aurrean kopurua eta ondoren zer aipatuz.

KARTETAN

Karta-sorta	Karten multzoa
Kartak eho, kartak orraztu	Jokaldia hasi baino lehen, kartak nahasi.
Kartak ebaki	Kartak eho ondoren, aurkako jokalaria bi edo multzo gehiagotan banatuko ditu eta eman behar dituenak berriro elkartuko ditu, ordena desberdinean jarritz.
Karta nagusiak	Joko ezberdinetan balio gehien dituzten kartak dira.
Nor da eman? Neu naiz eman, zeu zara	Nori dagokio kartak ematea? Niri dagokit.
Azpiko (ezpata da azpiko)	Zenbait jokotan nagusi den paloa.

Hona hemen, karta-sorta espainoleko karta guziten izenak:

URREA		KOPA		EZPATA		BASTOIA	
Bateko	urrea	Bateko	kopa	Bateko	ezpata	Bateko	bastoia
Biko	urrea	Biko	kopa	Biko	ezpata	Biko	bastoia
Hiruko	urrea	Hiruko	kopa	Hiruko	ezpata	Hiruko	bastoia
Lauko	urrea	Lauko	kopa	Lauko	ezpata	Lauko	bastoia
Bosteko	urrea	Bosteko	kopa	Bosteko	ezpata	Bosteko	bastoia
Seiko	urrea	Seiko	kopa	Seiko	ezpata	Seiko	bastoia
Zazpiko	urrea	Zazpiko	kopa	Zazpiko	ezpata	Zazpiko	bastoia
Zortziko	urrea	Zortziko	kopa	Zortziko	ezpata	Zortziko	bastoia
Bederatziko	urrea	Bederatziko	kopa	Bederatziko	ezpata	Bederatziko	bastoia
Hamarreko	urrea	Hamarreko	kopa	Hamarreko	ezpata	Hamarreko	bastoia
Txanka	urrea	Txanka	kopa	Txanka	ezpata	Txanka	bastoia
Zaldun	urrea	Zaldun	kopa	Zaldun	ezpata	Zaldun	bastoia
Errege	urrea	Errege	kopa	Errege	ezpata	Errege	bastoia
KOMODINA							

Karta-sorta frantseseko karten izenak honako hauek dira:

BIHOTZA		PIKA		DIAMANTEA		HIRUSTA	
Bateko	bihotza	Bateko	pika	Bateko	diamantea	Bateko	hirusta
Biko	bihotza	Biko	pika	Biko	diamantea	Biko	hirusta
Hiruko	bihotza	Hiruko	pika	Hiruko	diamantea	Hiruko	hirusta
Lauko	bihotza	Lauko	pika	Lauko	diamantea	Lauko	hirusta
Bosteko	bihotza	Bosteko	pika	Bosteko	diamantea	Bosteko	hirusta
Seiko	bihotza	Seiko	pika	Seiko	diamantea	Seiko	hirusta
Zazpiko	bihotza	Zazpiko	pika	Zazpiko	diamantea	Zazpiko	hirusta
Zortziko	bihotza	Zortziko	pika	Zortziko	diamantea	Zortziko	hirusta
Bederatziko	bihotza	Bederatziko	pika	Bederatziko	diamantea	Bederatziko	hirusta
Hamarreko	bihotza	Hamarreko	pika	Hamarreko	diamantea	Hamarreko	hirusta
Txanka	bihotza	Txanka	pika	Txanka	diamantea	Txanka	hirusta
Zaldun	bihotza	Zaldun	pika	Zaldun	diamantea	Zaldun	hirusta
Errege	bihotza	Errege	pika	Errege	diamantea	Errege	hirusta
JOKERRA							

Dadoak

Kartekin antzera gertatzen da dadoen puntuazio ezberdina izendatzeko orduan. Alabaina, kasu honetan osagai bakarra erabiltzen da eta honi -ko bukaera gaineratzen zaio. Ondoan dadoen balio ezberdinak dituzu:

DADO ARRUNTAK		POKERREKO DADOAK	
IZENA	BALIOA	IZENA	IKURRA
Batekoa	bat	Batekoa	●
Bikoa	bi	Erregea	K
Hirukoa	hiru	Zalduna/Dama	Q
Laukoa	lau	Txanka	J
Bostekoa	bost	Zortzikoa	gorria
Seikoa	sei edo zazpi	Zazpikoa	beltza
		Hamarrekoa	gorria
		Bederatzikoa	beltza

Godaleta	Dadoak jaurtitzeko erabiltzen den ontzia.
Tapetea	Dadoak jaurtitzen diren oihala.
Dadoak jaurti (itzan, itzak, itzazu...)	Dadoak bota.
Jaurtiketa	Dadoak botatzeko ekintza.
Gezurtian aritu, ibili	Dadoen joko mota bat.
Kirikian aritu	Dadoen joko mota bat.
Lasterketan aritu	Dadoen joko mota bat.
Pokerrean aritu	Dadoen joko mota bat.
Errepokerra	Bost alde berdinak.
Pokerra	Lau alde berdin.
Fulla	Hiru alde berdin eta beste biak ere bai.
Hirukotea	Hiru alde berdin.
Bikotea	Bi alde berdin.
Kirikia	Hamarreko eta bederatziko aldeak batera.

Dominoa

Joko honetako piezek bi alde dituzte eta bakoitzean kopuru bat adierazten da. Beraz, kasu honetan fitxa bakoitzaren izena bi zenbakiz osaturik dago. Nik handitik txikira izendatu ditut, alabaina alderantziz ere izan daitezke.

DOMINOKO FITXAK							
Seiko	txuria	Bosteko	txuria	Lauko	bata	Hiruko	hirua
Seiko	bata	Bosteko	bata	Lauko	bia	Biko	txuria
Seiko	bia	Bosteko	bia	Lauko	hirua	Biko	bata
Seiko	hirua	Bosteko	hirua	Lauko	laua	Biko	bia
Seiko	laua	Bosteko	laua	Hiruko	txuria	Bateko	txuria
Seiko	bosta	Seiko	bosta	Hiruko	bata	Bateko	bata
Seiko	seia	Lauko	txuria	Hiruko	bia	Txuriko	txuria




Seiko	seia	edo	Seiko	bikotea
Bosteko	bosta	edo	Bosteko	bikotea
Lauko	laua	edo	Lauko	bikotea
Hiruko	hirua	edo	Hiruko	bikotea
Biko	bia	edo	Biko	bikotea
Bateko	bata	edo	Bateko	bikotea
Txuriko	txuria	edo	Txuriko	bikotea

hobetsia




Ireki	Jokatzen hasi. Domino jokoaren mutur itxi bat zabaldu.
Itxi	Domino jokoaren muturretako bat edo biak fitxa gehiagorik tzeiko aukerarik gabe utzi. Jokoa bukatu
Itxita	Domino jokoaren muturretako batean edo bietan fitxa gehiagorik jartzeko aukerarik ez dagoenean (jokalari batek bidea kontrolatzen duelako edo zenbaki horretako fitxak bukatu direlako).
Bikotea jarri	Zazpi bikoteetako bat ipini.

Nire proposamena zera da: linealtasunari jarraitzea. Oro har, fitxa baten bi aldeetan kopuru desberdinak azaltzen direnez, fitxaren izena esatean lehendabizi kopuru handiena -ko bukaeraz eta gero txikiena aipatzeak zuzenagoa ematen du. Alabaina, jokatzen ari garela, segida ezberdinen arabera, askotan kopuru txikiko aldea muturrari lotzen zaio eta kopuru handiko aldea bidea irekitzen edo ixten geratzen da; hortaz, fitxa izendatzean eta linealtasunari jarraituz, kopuru txikia -ko bukaeraz eta ondoren kopuru handia esan beharko litzateke. Nire ustez, biak zilegiak dira. Hona hemen zenbait fitxaren izenak.



Linealtasunari darraion adibidea:



Partxisa / Txangoan / Artzaintzan

Lehengoan, ikasleekin partxisaren arauz ari ginela, joko hau bide luzetik egin behar den bidaia baten antzekoa zela aipatu zen eta, orduan, ikasle bati etxetik baserrira bezalako txangoa zela bururatu zitzaion. Bestalde, artzainek bere ardiak baserritik bordara edota alderantziz eramateko egiten duten lanaren antzeko joko bihur genezake. Beraz, ideia on hauei jarraituz, partxisaren taulari mendiz egindako ibilaldi baten itxura eman genion eta honela geratu zitzaigun:

*Lau jokalarari aritzen dira lau kolore desberdineko launa fitxa eta dado banarekin.

*Hasieran fitxak etxean daude. Etxetik ateratzeko, dadoaz bostekoa atera behar da; fitxaren bat etxean badago nahitaez atera behar da, irteera laukian ataka dagoenean salbu. Fitxa guztiak etxetik kanpo badaude, seikoak zazpi balio izango du.

*Jokoaren helburua lau fitxak etxetik baserrira eramatea da.

*Dadoaz seiko bat ateratzen bada, berriro jaurtitzeko aukera dago, baina hiru seiko segidan ateratzen badira, mugitu den azken fitxak etxera itzuli beharko du.

*Bidean goazela, beste jokalarari batek bere fitxak harrapatzen bagaitu, geure fitxak etxera itzuli beharko du eta beste jokalarariak bide-zidorretik hogeitau laukitan aurreratuko du nahi duen fitxa, atakarik ez badago. Alderantziz gauza bera.

*Aterpeetan babesean nago, beraz ezin naute harrapatu eta etxera bidali.

*Bidean zehar, edozein lekutan ataka (kolore bereko bi fitxa lauki berean) egon edo era daiteke. Ataka eratu duenak seiko batez nahitaez ireki beharko du.


*Bidean ataka batekin topo egiten badut, ezin izango dut aurrera segitu eta ireki arte itxaron beharko dut.

*Baserriko ezkaratzera iristean, babesean egongo naiz eta ezin izango naute etxera bidali. Ezkaratzean nagoela, goiti-beheiti ibil naiteke (edo ez).

*Fitxa bat baserrian sartzean, beste fitxa bat bide-zidorretik hamar laukitan zehar aurrera daiteke, etxetik kanpo badago eta atakarik ez badago.



Etxea, basetxea, borda	Jokoaren hasieran fitxak dauden lekua.
Irteera (laukia)	Etzetik ateratzeko erabiltzen den lehen laukia.
Aterpea, babeslekua	Fitxa babesean dagoen laukia.
Ataka, hesia	Kolore bereko bi fitxak edozein laukitan osatzen duten oztopoa.
Bide-zidorretik joan	Beste jokalarari baten fitxa harrapatzen denean edo norberaren bordara (baserrira) iristeagatik aurreratzen diren hogei edo hamar laukiak, hurrenez hurren.
Ezkaratza	Baserriko sarrera babestua.



Xakea

Joko ezagun honetako piezak txuriak edota beltzak dira eta bere izenak ondokoak ditugu:

PEOia	GAZTELUa	ZALDIA
ALFILA	ERREGINA/DAMA	ERREGEA

Xakean bada zenbait jokaldi izen berezia duena, adibidez:

Xake(a)	Erreginari edo erregeari ematen zaion arrisku-abisua.
Xake mate(a)	Beti erregeari ematen zaion bukaerako jokaldia
Artzainaren xake mate(a)	Jokaldi gutxitan egiten den xake mate erraza
Endroke(a)	Erregea eta gaztelua batera mugituz egiten den jokaldia, mugituko den lehen pieza beti erregea izango da.
Erregina/dama lortu	Jokalari batek bere peoi bat beste jokalariaren alderaino eramaten duenean, peoiaren truke erregina eskuratzen du.
Ito	Erregea mugitu ezinik geratzen denean, berdinketan gelditzen da jokaldia



Dama-jokoa

Joko honetako piezak izendatzeko ez dago arazorik, bi besterik ez baitago.

PEOia	DAMA
--------------	-------------

Bestalde, ondoko esamoldeak erabiltzen dira, adibidez:

Jana, harrapatua	Jokalari batek bestearen pieza bat harrapatzen duenean.
Jana ez jateagatik, harrapatua ez harrapatzeagatik	Jokalari batek bestearen pieza bat jan behar duenean eta jan ez duenean.
Dama lortu	Jokalari batek bere peoi bat beste jokalariaren alderaino eramaten duenean.
Ito	Azken pieza mugitu ezinik geratzen bada, berdinketan gelditzen da jokaldia.



Ikasturte berriko datuen artean dantzan

Ikasturte berria estreinatu dugu dagoeneko guztiok eta lanean murgildurik gabilta. Ikastetxe bakoitzak hasi du bere ibilbide berria eta ekaina arte ez da gelditzerik izango. Ikasleak gela huts eta isilak eraldatu dituzte. Oro har, iaz baino gutxiago izango dira ikasleak, baina hala ere, ez dira gutxi.

Egia esan, ikasle kopuruak ez du aldaketa handirik atzeman, baina azken urteotako beherakada mantendu da aurten ere. Nafarroan 82.584 haur matrikulatu dira 1998/99 ikasturtean, iaz baino 3.279 gutxiago. EAEn, berriz, 334.484 ikasle izanen dira aurten, eta hiru urteko ikasle berriak 15.674, azken urteotako antzera. Pirinio Atlantikoko departamenduan, hau da, Iparraldeko hiru probintzietan eta Biarnon, 114.000 ikasle izanen dira aurten.

Ikasle kopuruaren beherakada ez da oso nabarmena aurten, aurreko urteetako joera mantentzen baita. Dena dela, beherakada hori hiru urteko haurren matrikulazio datuetan nabarmentzen da gehien. Nafarroan, esaterako, 4.590 haur matrikulatu dira aurten lehenengo aldiz, iaz baino 17 gutxiago. EAEn, bestalde, 15.674 matrikulazio izan dira, iaz baino 199 gutxiago.

Nafarroan kopuru orokorra ezezik, D eta B ereduetan matrikulatutako haur kopurua ere jeitsi egin da lehenengo aldiz. Hiru urteko 1.225 haurrek eman dute izena B eta D ereduetan, hots, %26,7ak. Iaz, berriz, %27,9a zen ereduotan matrikulatutako haurren kopurua.

Iparraldean, bestalde, eskola elebidunetako eta Seaskako ikasle kopuruak gora egin du. Hiru probintzietako eskola elebidunetan 2.100 ikaslek eman dute izena, iaz baino 150 gehiagok. Seaskan ere kopuruak gora egin du. Iaz 1.220 haur matrikulatu ziren, eta aurten 1.300.

EAEn ere D ereduak gora igotzen jarraitzen du. A ereduari 3 urteko 2.002 haur matrikulatu dira (%12,8), B ereduari 4.905 (%31,3) eta D ereduari 8.767 (%55,9).

Datu hauek 3 urteko haurren matrikulazioari dagozkionak dira, baina Haur eta Lehen Hezkuntza kontuan harturik ere D ereduaren gorakada nabaria da azken urteotan. Taula hau da horren isladak.

Berrikuntza gehiago

Erreforma dela eta ez dela, azken urteotan berrikuntza eta aldaketa ugari izan ditugu gure inguruan. Bada, aurtengo ikasturtean ere izango dira, oraindik LOGSE ez baitago guztiz ezarria.


Aldaketa bat EAEn Batxilergoko eta Lanbide Heziketako iraileko azterketak ekainera aurreratzea izango da. Ekainaren 21 eta 30 bitartean egingo dira azterke-

tak. Aldaketa honekin eskola egutegia familiara egokitu nahi izan dute. Bestetik, unibertsitateari ere onura egingo dio, ekainean bertan jakin ahal izango baitu zenbat ikasle izango dituen karrera bakoitzean.


Ikasketa hauetan egutegiak ere moldaketak izango ditu. Ikasleek Aste Santutan eta Ihauterietan astebeteko oporrak izango dituzte.

Bestalde, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen asteko ordu kopurua 25 orduetik 23ra jeisten da. Horrela, ikastaroetara joateko aukera zabaltzen zaie.


Ikastaroei loturik, euskara ikasteko aukera ere zabaldu egin da. Orain arte sei hilabeteko ikastaroak antolatzen zituen Iralek, eta hemendik aurrera kurso osokoak izango dira. Horrela, ikasturte erdian ez da ordezkorik bilatu beharrik



Iparraldeko Euskal Irakaskuntza Ama Eskola eta Lehen mailan



Ereduen eboluzioa Nafarroan Haur eta Lehen Hezkuntzan



Ereduen eboluzioa EAEn Haur eta Lehen Hezkuntzan

izango. Gehienez ere hiru ikasturteko liberazioak egongo dira.

Sei hilabetetik urtebeterako ordaindu gabeko baimenak edo soldata gutxiagorekin diren lanaldi murrizketak ere aukera izango dira.

Nafarroan Erreformako aldaketak egin ostean, aurten Lehen Hezkuntzako eduki eta helburuak gainbegiratzeari ekingo diote. Ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia eta matematika indartu nahi dituzte, ikasleen komunikazio egokirako eta garapenerako oinarritzko edukiak direla uste dutelako. DBH, berriz, iaz osatu zen eta Hezkuntza Departamentua hobeto egokitzen ahaleginduko da.

Iparraldean ere erreformaren abiatzea izanen da ikasturte honetako aldaketarik nagusia. Hezkunde Nazionalak programak egungo garaira egokitzeko erabakia hartu du eta lehen aldaketak aurten nabaritutako dira: teknologia berrien eta hizkuntzen irakaskuntza lehen mailatik hasia.

Oztopoak

Nafarroan D ereduaren inguruan izan dira gora-beherak aurten ere. Baina azkenean Nafarroako Hezkuntza Departamentuak onartu du Iruñeko Arrotxapea eta Alde Zaharreko ikastetxe publikoetan euskarazko lerro berriak zabaltzea. Era berean, Ave Maria eta San Frantziskon D ereduako lerro berri bana izango da aurten. Batxilergo Artistikoa ere euskaraz ikasi ahal izango da, Iturramako ikastetxe publikoan, hain zuzen ere. Hala ere, arazo guztiak ez dira konpondu. Ermitagaña auzoko Jose Maria Iribarren ikastetxean oraindik ez dute D ereduako lerro berria ireki. 18 haur matrikulatu dira, lerro berria irekitzeko nahikoa direlarik. Baina Gobernuaren asmoa haurrak autobusez San Francisco ikastetxera bidaltzea eta han jantokia doan eskaintzea da.

Iparraldean Seaskako Ziburuko kolejiario berriak izan dira ezusteak. Kolejiario irekitzeko inongo aurkakotasunik ez zuen ikusi Gilles Bouilhaguet prefetak, baina Jean Marc Monteile Bordeleko Akademiako errektoreak agiri eta baimen guztiak behar ziren bezala aurkezturik ez zeudela argudiatuz ez zuen irekitzeko baimenik eman. Dena dela, Seaskako arduradunak berehala jarri ziren berarekin harremanetan eta beharrezko agiriak bidali ondoren arazoa konpondu da. Kolejioko 76 ikasleak egoitza berriak irekitzeko moduan izango dira.

Irakaskuntzaren kalitatea, efikazia...



Pello ARAMENDI JAUREGI
Eskoriatzako Irakasle Eskola

Kastetxeen eta hezkuntzaren kalitateaz asko hitz egiten da. Baina zer da kalitatea? Nola lortu kalitate hori? Goazen lehenik eta behin kalitatearen kontzeptua argitzera, eta ondoren, kalitatezko ikastetxearen norabidea hartzeko baliagarriak diren ezaugarriak ikustera.

Kalitatea, efikazia eta efizientziaren definizioak

Kalitateaz hitz egiten hasi aurretik, garrantzitsua da kalitateaz zer ulertzen dugun jakitea. Definizio ugari daude eta autore bakoitzak berea osatu du.

López Ruperez F.-ek (1994) irakaskuntzaren kalitatea horrela definitzen du:

“Kalitatea bezeroen beharrak eta

itxaropenak asetzea da”. Bezeroen (guraso, ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitatearen) beharrak betetzeari ematen dio lehentasuna.

Roure, J. (1992): “Kalitate osoa erakundearen jardueren kudeaketa mota bat da, bezeroaren beharrak eta itxaropenak betetzeko. Jarduera hauek erakundearentzat ekonomikoki errentagarriak edo efizienteak izan behar dute”.

Berry, T. H. (1992): “Kalitatea bezeroen beharrak asetzea da. Horretarako, kalitateak neurgarria izan behar du edo neurtzeko moduan definitu behar da. Neurgarria ez balitz, lortu ezinezkoa izango litzateke”.

Wilson, J. D. (1992): “Ikasleriaren aniztasuna kontuan harturik, irakaskuntzaren kalitatea ikasle bakoitzarentzat curriculum egokiena eskaintzea izango litzateke”.

García Hoz, V. (1988): “Hezkuntzaren kalitatearen ezaugarriak hauek dira: integrala eta koherentea izatea eta efikazia lortzea”.

Gento Palacios, S. (1991): “Kalitatea barruko eta kanpoko bezeroen beharrak eta itxaropenak asetzeko zerbitzuak eskaintzea da”.

LOGSE (1990): “Kalitatezko ikastetxe baten ezaugarrietako bat ikasleriaren aurrerakada handiena ahalik eta baldintza hobereenetan lortzea izango litzateke”.

Gomez Dacal, G. (1992): “Ikastetxearen efikazia bere helburuak lortzeko gaitasun maila izango litzateke.

Efizientzia, aldiz, ikastetxeko helburuak lortzeko gaitasuna izatea, baina baliabide mugatu batzurekin”.

Kalitatea, efikazia edo efizientzia lortzen duten ikastetxeen ezaugarriak

Zenbait pedagogoen lanak kontsultatu ondoren (Purkey eta Smith (1983), Edmons, R. R. (1979), Schereens, J. (1990), Gento Palacios, S. (1995), eta LOGSEn (1990) azaltzen diren definizioak ikusita, efikazia eta kalitatearen ezaugarrien zerrenda eta sailkapena egin dugu:

Zuzendaritzaren ezaugarriak

- Zuzendaritzak ikastetxeko arazoak konpontzeko edo askatzeko borondatea edukitzea. Curriculumeko arazoez arduratzea eta ikastetxearen kudeaketan sortzen diren oztopoak gainditzeko gaitasuna izatea. Arazo hauek gainditzeko ikastetxeak autonomia edukitzea beharrezkoa da.

- Guraso eta, orokorrean, bezeroen beharrak asetzeko zuzendaritzak duen sentsibilizazioa. Bezeroekiko lotura, komunikazioa eta harreman sendoa edukitzea.

- Ikastetxeak hartu behar duen norabidea finkatzea. Ikastetxeko helburuak zeintzuk diren argi ikustea.

- Irakasleria inplikatzeko gaitasuna izatea. Lidergo pedagogikoa, irakaskuntzaren kalitatea eta hobekuntzaren gidaritzak edukitzea. Ikasle-

riaren emaitza akademikoez arduratzea eta kontrola eramatea.

- Langileriaren eta ikastetxeko ekinzen ardura eta kontrola eramatea.
- Zuzendaritzak irakasleriaren arteko elkarrekintza eta giro atsegina bultzatzea.

Baliabideen inguruan

- Eskola eta klase denboraren ustiapena, hau da, ikasgelan ematen den ordu kopurua aprobetxatzea.

- Irakasle taldeek berrikuntza prozesuetan inbertitzen duten ordu kopurua (hobekuntza bultzatzeko egiten diren ziklo, departamentu, maila edo klausuroko bilerak).

- Hezkuntza komunitateak ikastetxeko azpiegiturarekin duen asetzeko maila.

- Informatika, ikus-entzunezkoak, teknologia berriak edo beste edozein gai lantzeko materialaren nahikotasuna eta erabilpen egokia. Ekipamendu eta material hau noizean behin berritzea.

- Auzo edo herriari ikastetxeko azpiegiturak uztea, ikastetxeak duen herriarekiko irekitasunaren adierazgarri.

Antolaketa orokorrari buruzkoak

- Organigrama ikastetxeko lanaren arabera egokitzea. Lan ezberdinen arabera, ikastetxeko egitura birmoldatzea eta egokitzea. Irakasleria, guraso eta ikasleen rolak, zereginak eta erantzunkizunak argi finkatzea.

- Ikastetxearen neurri egokia. Ikastetxe handiegien berrikuntzarako eta bere antolaketarako oztupoak dituzte.

- Irakasle, ikasle eta gurasoen artean ikastetxea kudeatzea. Antolaketa prozesuak era partzehartzailer batean bideratzea.

- Irakasleriaren aukeraketa ikastetxearen beharren arabera egitea. Ikastetxeak, bere beharren arabera, irakasleriaren aukeraketa zorrotza egiten du.

- Ikastetxeak duen lanarekiko orientazioa, grina eta konpromezua. Hezkuntza komunitateko sektore guztien inplikazioa.

- Ikastetxeak lortu behar dituen helburuak sektore guztien artean adostea,



“Kalitatearen esanahia eta oinarria bezeroaren beharrak asetzea da. Hori lortzeko aipatutako ezaugarriak baliagarriak suertatuko dira”

argi edukitzea, denok ezagutzea eta inplikitzea.

- Ikastetxean errespetuzko harremanak bultzatzea. Partaideen disziplina, ordena eta kontrol irizpideak elkarrenganako errespetuan oinarritzea.

Ikaslearen ezaugarriak

- Ikasleari eskolaren bizitzan inplikatzeko, parte hartzeko eta ardurak hartzeko aukerak ematea.

- Irakasleriaren ikaskuntza prozesuaren jarraipena egitea, ebaluatzea, bere esfortzua eta lana baloratzea. Irakasleriaren autokontzeptua sendotzea eta bere itxaropen maila era arrazional batean igotzea.

- Irakasleriari ematen zaion banakako tratamendua edo irakaskuntza indibidualizatzeko eta pertsonalizatzeko egiten diren ahaleginak.

- Irakasleriaren aukeraketa irizpideak matrikula egiterakoan.

- Ikaslea ikastetxeko partaidea eta eragilea sentitzea.

- Irakasleriak jasotzen duen klase ordu kopurua. Ikastaldeak egiteko edo taldekatzeko erabiltzen diren irizpideak (talde heterogeneoak edo homogeneoak) argi edukitzea.

Ikastetxeko giroa

- Irakasleen arteko errespetuzko harremanak eta lan giro atsegina lortzea. Irakasleriak ikasleekiko itxaropen altua eta kontzeptu positiboa edukitzea.

- Ikastetxeko partaide izatearen poztasuna.

- Irakasleen arteko kohesioa, batasuna, adostasuna, komunikazio irekia eta talde-lana.

- Zuzendaritzak ikastetxeko giroa bultzatzea.

Zerbitzuak

- Zerbitzu osagarriak edukitzea: jangela, eskolaz kanpoko ekintzen ugartasuna, garraioa, orientazioa eta zerbitzu psikopedagogikoak eta abar.

Talde lanari buruzkoak

- Departamendu, ziklo edo irakasle taldeak, batzordea eta guraso komisiok ikastetxeko maiztasunez biltzea eta lan egitea berrikuntza eta hobekuntza bultzatzeko asmoz. Irakasleriak ikastetxeko metodoak eta curriculum arazokak eztabaidatzeko eta planifikatzeko denbora inbertitzea.

Irakasleriaren ezaugarriak

- Irakasleriaren prestakuntza iraunkorra bultzatzea ikastetxearen beharrak kontuan hartuz. Prestakuntza hau, eguneroko praktika kontuan harturik eta bere beharren arabera, ikastetxean bertan gauzatzea komenigarria litzateke.

- Irakasleriaren etekina, efikazia eta eskakizun maila egokia izatea ikasge-lan.

- Irakasleriak disziplina arazoetan egiten duen prebentzio lana.

- Irakasle bakoitza, bere ezaugarrien arabera, lanpostu egokienean kokatzea. Irakasleriaren egonkortasuna eta ikastetxearen hezkuntza proiektuan duen inplikazioa.

- Irakasle-tutorearen zereginak eta erantzukizunak argi edukitzea.

- Irakasleriak parte hartzea eta inplikatzea erabakiak hartzerakoan.

- Irakasleriaren artean laguntza, lan-kidetza eta babes giroa egotea. Irakasle berriak ikastetxean era egoki batean integratzeko asmoz, informazio, orientazio edo harrera programa edo ekintzak sortzea (mentorazgoa).

Ingurunea, guraso eta hezkuntza komunitateari buruz

- Auzo eta herriarekin harreman ugari edukitzea. Ikastetxea herriko ekintza kulturaletan integratzea. Zonaldeko hezkuntza zerbitzuekin ikastetxeak dituen harremanak lantzea. Curriculum ekintza eta jarduerak ingurunearekin erlazionatzea, bere arazoak eta ezaugarriak kontuan hartuz.

- Agintari, botere edo administrazio ezberdinen laguntza (udala, hezkuntza saila, enpresak, elkarteak...).

- Ikastetxea eta familien arteko lan-kidetza, harremana eta komunikazioa (tutoretza, bilerak,...). Ikastetxeak familiari eskaintzen dion arreta lantzea. Gurasoen inplikazioa eta konpromezua lortzea hezkuntza jardueretan.

Ikasketa emaitzak eta maila akademikoa ikasle, irakasle eta gurasoen arteko erronka direla kontzienteak izatea.

- Familien maila soziokulturala eta sozioekonomikoa ertaina-altua. Gurasoen itxaropenak altuak izatea beraien seme-alabarekiko. Seme-alabez irudi positiboa izatea.

- Ikastetxeak herri mailan irudi ona edukitzea.

- Hezkuntza komunitateak (irakasle, ikasle eta gurasoak) balio eta helburu amankomunak adostuta edukitzea.

Hausnarketa

Orain arte aipatu ditugun kalitatezko ikastetxeen ezaugarriak orientazio gisa har daitezke. Beste hainbat eta hainbat ezaugarri ere azalduko zaizkigu, baina gutxienez hauek ikastetxearen norabidea hartzeko baliagarriak izan daitezke.

Ikastetxe efikazak edo kalitatezko eskolen ezaugarri hauek interpretatzerakoan, kontestu eta kultura ezberdineko eskolen ezaugarriak jaso ditugula aipatu behar da. Definizioetan azaldu dugun bezala, kalitatearen esanahia eta oinarria bezeroaren beharrak asetzeari izango litzateke, baina Ingalaterra, Danimarka edo Euskal Herriko "bezeroek" dituzten beharrak ez dira berdinak. Beraz, kalitatezko irakas-

kuntzaren kontzeptua eta ezaugarriak kultura eta kontestu ezberdinek mugatzen dituzte.

Hau dela eta, kalitatearen definizioa aldakorra izanik, ikastetxe edo hezkuntza komunitate bakoitzak definitu eta zehaztu beharko luke hezkuntzaren kalitatea zertan datzan.

Azkenik, Berry T. H.ek (1992) dioten bezala, "kalitatearen kontzeptua parametro batzuen bidez neurtzeko gai ez bagara, ez dugu inoiz jakingo kalitate hau lortu dugun edo ez".

Bibliografia

- Beare, H., Caldwell, B.J. eta Millikan, R.H. (1992) : "Cómo conseguir centros de calidad". La Muralla argitaletxea. Madril.

- Berry, L. eta Parasuraman, A. (1992): "Calidad total en la gestión de servicios". Díaz de Santos argitaletxea. Madril.- Escuela Asturiana de Estudios Hispánicos (1981): "La calidad de la educación". C.S.I.C. Madril.

- García Hoz, V. (1989), Roure, J. (1992), Shereens, R.R. (1992) eta Gento Palacios, S. (1996): "Instituciones educativas para la calidad total". La Muralla argitaletxea. Madril.

- Gómez Dacal, G. (1992): "Escuelas eficaces y profesores eficientes". La Muralla argitaletxea. Madril.

- Harrington, H.J. (1990): "El coste de la mala calidad". Díaz de Santos argitaletxea. Madril.

- Juran, J. M. (1990): "Juran y la planificación para la calidad". Díaz de Santos argitaletxea. Madril.

- M.E.C. (1990): "Ley de Ordenación del Sistema Educativo". M.E.C. argitaletxea. Madril.

- López Rupérez, F. (1994): "La gestión de calidad en educación". La Muralla argitaletxea. Madril.

- O.C.D.E. (1991): "Escuelas y calidad de la enseñanza. Informe internacional". Paidós- M.E.C. argitaletxea. Barcelona.

- Wilson, J.D. (1992): "Cómo valorar la calidad de la enseñanza". Paidós- M.E.C. argitaletxea. Barcelona.

GUTUNAK

Zuen kezkak,
iritziak,
desadostasunak,
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.



B e r r i a k

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

URRIA



"Bai euskarari" kanpaina hasi du Kontseiluak

XXI. menderako akordioa oinarritzat harturik Bai euskarari kanpainari ekin dio Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. Kanpaina honen helburua euskara garai eta giro berrietara egokitzea da, eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dute euskararen unibertsoa osatzen duten talde eta erakunde guztiak biltzea.

Kontseiluak prestatutako txostenaren arabera, "euskarak irabaziak dituen prestigioa eta aldekotasan soziala areagotzea da helburu nagusia, hartara gainerako hizkuntza eta kulturek erdietsi duten betetasuna lor dezan".

Hori lortzeko, beharrezkotzat jotzen dute herritar, erakunde eta eragile guztiak aktibatzea. Arrazoi horregatik jarriko da martxan "Bai euskarari" kanpaina udazkenean. Azarotik aurrera eskualdeka akordioaren asteak antolatuko dira eta berauetan herritarrei eta tokian tokiko eragile sozialei XXI. mendeko akordio zertan datzan azalduko diete euskalgintzako partaideek. Horrez gain, hitzaldiak, bilerak, bisitak eta hainbat ekintza izango dira.

Ikastaroak

Urtxintxa Eskolaren eskaintza

Urtxintxa Astialdiko Hezitzaile Eskolak ikastaro eta monografiko sorta bat antolatu du ikasturte berrirako:

- "Astialdiko begiralea" ikastaroa
- "Astialdiko zuzendaria" ikastaroa
- "Ludotekak" monografikoa
- "Gazte lekuak" monografikoa
- "Malabare" tailerra
- "Euskara suspertzailea" monografikoa
- "Euskal jolasak" monografikoa
- "Heziketa berezia" monografikoa
- "Hezkidetza" monografikoa
- "Drogomenpekotasunen prebentzioa" monografikoa
- "3. adinaren dinamizatzailea" monografikoa

Izena emateko epea irailaren 25ean bukatzen da Astialdiko begirale ikastaroaren kasuan, eta gainontzekoetan urriaren 2an.

Informazio gehiago:

Urtxintxa Astialdi Hezitzaileen Eskola
DONOSTIA
Euskal Herria kalea, 7
Alde Zaharra
20003
Tel.: 943 42 79 27
Fax: 943 42 73 06

BILBO

Zabalbide 26, behea
48006
Tel.: 94 432 04 45
Fax: 94 433 59 05

IRUÑEA

Nueva 4 - 1- ezk.
31001
Tel.: 948 21 14 78

GASTEIZ

"Gasteiz Txiki Auzo Elkarte"
Las Escuelas 9
01001
Tel.: 945 25 14 28

BEZAIN psikologia eta sexologia zentroa

Zentro honek eskaintzen duen ikastaroa "Sexu heziketako eta familia orientabideko begirale programa" da. Ikastaro honen helburua interesatuei sexu heziketarako programa integral bat betetzeko behar duten prestakuntza eskaintzea da. Interesgarria da aholkularitza lanak egiteko eta baliagarria izan daiteke heziketa formalean zein heziketa arautu gabean lan egiteko.

Izena emateko epea urriaren 2an amaitzen da. Informazio gehiago:

Bezain

Pilota kalea 1, 1.

Bilbo

Tel.: 94 416 08 43

Ingurugiro hezkuntza programa

Iruñerriko Mankomunitateak Ingurugiro Hezkuntza Programaren barruan 98/99 ikasturtean egingo diren jardueretarako izena emateko epea ireki du: urriaren 1etik 31ra. Iruñerriko ikastetxeek eskabide-orriak bidali beharko dituzte, eta beste ikastetxeek telefonoz edo idatziz.

Informazio gehiago:

Baliabideen zentroa

Imaz Anaien kalea 1

31002 Iruñea

Tel.: 943 42 32 85

CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako V. Sariak

Sari honetan euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako lanak saritzen dira. Bi maila izango dira:

- A maila: idazle berriek idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgazio-artikuluak.

- B maila: zientzia eta teknologiaren dibulgazio-liburuak.

Lanak 1998ko azaroaren 15a baino lehen bidali beharko dira.

Informazio gehiago:

Elhuyar Kultur Elkarte
Asteasuain, 14
20170 Usurbil
Tel.: 943 36 30 40

Emakunde sariak 1998

Emakunde Sariak lehiaketak emakumezkoen eta gizezkoen artean eman behar den aukeraberdintasunaren alde lan egiten duten profesionalak zein erakundeak saritzea du helburu. Aurkezten diren lanak EAEn 1998ko urtarrilaren 1etik azaroaren 10era bitartean argitaratuak, eginak edo zabalduak izan behar dute. Edo bestela, 1998ko abenduaren 31 baino lehen kalera-ituak izango direla frogatu. Lau eremu desberdinetan sailkatzen dira lanak: komunikabideak, publizitatea, hezkuntza eta kirola.

Lanak aurkezteko epea azaroaren 10ean amaitzen da. Informazio gehiago:

EMAKUNDE

Manuel Iradier kalea, 36

01005 Gasteiz

Tel.: 945 13 26 13

Sortzen ere Erregearen aurrean

Irailaren 14ean Espainiako Errege-Errege-inak Iruñean izan ziren aurtengo ikasturteari hasiera emateko Nafarroako Gobernuak antolatutako ekitaldian. Sortzenek bertara joateko gonbitea jaso zuen. Aurretik esan bezala, helburu batekin joan zen ekitaldira: Iruñeko Ermitagaña auzoko Jose Maria Iribarren ikastetxeko egoeraren berri ematea. Nafarroako Parlamentuak ikastetxe publiko honetan D eredu zabaltea onartu zuen, baina Gobernuak ez du oraindik ezer egin. Erregeari egoera horren berri eman nahi zioten, eta horretarako Rikardo Edera Sortzeneko kidea gutun helarazten saiatu zen. Baina ez zioten utzi bere asmoa aurrera eramaten. Dena dela, hemen daukazue erregeari eman nahi izan zioten testua, gazteleraz noski, berak uler zezan:

Ermitagañako (Iruñea) hiru urteko haur baten eskutitza

Kaixo:

Ermitagaña auzoko hiru urteko haurra naiz eta aurreko ikastolara joango naizela baldin badakit ere, oraindik ez dakit noiz edo nora.

Nire auzoko beste haur batzuk hasi dira etxe ondoko eskolan; egunero euren gurasoek eskutik helduta eramaten ditzute eta gauza bera egiten dute irteeran, inongo autobusean sartu beharrik gabe.

Aitak eta amak esan didate etxetik geratu dagoen ikastola batera joateko eskubidea dudala, eta gainera, ekainaren 26an Nafarroako Legebiltzarrak Jose Maria Iribarren Eskola Publikoa berriro zabaltzea onartu zuela, bertan D ereduari, euskarazko ereduari, ekiteko.

Nik, ziurrenik txikia naizelako, ez dut ondo ulertzen zergatik Marcotegui izeneko gizon batek ez duen Legebiltzarrak erabakitakoa egin nahi; eta ez dut ulertzen zergatik egon behar dugun etxe ondoko ikastolara joateko baimena eskatzen, auzoko gainontzeko haurrak eskatu gabe joaten diren bitartean.

Noiz arte egongo naiz ikastolara joan gabe? Zergatik ez dit uzten gizon horrek etxetik hurbil euskaraz ikasten? Nire auzoan eskola bat hutsik izanik, zergatik eraman nahi naute autobus batean ezagutzen ez dudana eskola batera, urruneko auzo bateko haurrekin? Eskolako lagunak beste auzo batekoak badira, plazan norenkin ibiliko naiz jolasean? Zergatik?

Iruñean, 1998ko irailaren 14ean

ARGITALPENAK

IBAIZABAL-EDELIVIVES

Ikasturte berrirako materiala

Ikasturte hasierarekin batera Ibaizabal-Edelvives argitaletxeak testuliburu eta literatura liburuaren aurkezpena egin du. Euskaraz zein gazteleraz argitaratu dituen ikasmaterialak hauek dira:

- HHko 2. zikloan Matematika.
- DBH 3. eta 4. mailan Euskara eta Literatura, Geografia, Erligio Katolikoa eta Oinarriko Teknologia.

DOBH 1. eta 2. mailan Euskara eta Literatura, Euskara eta Literatura "A eredu", Matematika II, Gizarte Zientziei aplikatutako Matematika II, Historia, Fisika, Kimika, Biologia, Erligio Katolikoa, Filosofiaren Historia, Lengua Castellana eta Literatura II.

Material hau guztia osatzeko gaien, irakaskuntza sisteman, pedagogian eta abar adituak diren pertsonak ibili direla azaldu zuten aurkezpenean. Era berean, ikasle zein irakasleei egokitutako liburuak siste-



ma metodologiko modernoer jarraituz eratu dituztela azaldu zuten.

Literatura alorra ere ez dute jorratu gabe utzi. Lau bilduma aurkeztu zituzten Bilbon: Matxinsalto gaztxoen bilduma, Ekin gazteen bilduma, Txirri, Mirri eta Txiribiton "Komiki" bilduma eta Literatura Unibertsala. Azken honetan dagoeneko 76 liburu argitaratu dituzte. Azken lauak hauek dira: Manuel Mujica Lainezen "Zazpi demonioen bidaia", Joxe Migel Esnaolak itzulia, Madame de La Fayette "Clevesko Printzesa", Mikel Hoyosek itzulia, Katherine Mansfielden "Loratetik festa eta beste kontakizun batzuk", Anton Garikanok itzulia eta Sidonie Gabrielle Coletteren "Mari-Alderrai", Periko Diez de Ulzurrunek itzulia.

ELHUYAR HIZTEGI TXIKIA

920 orr.
3.000 pta.



Orain dela bi urte kaleratutako Elhuyar Euskara/Gaztelania-Castellano/Euskara hiztegiaren anai txikia argitaratu du Elhuyarrek. Izenak berak dioen bezala hiztegi txikiagoa da, eta batez ere eskolan edo institutuan dauden ikasleei (DBH eta DOBHko ikasleei batik bat) eta euskaraz ikasten ari diren helduei zuzendurik dago.

Elhuyar Hiztegia laburtu eta eguneratzea izan da helburua. Horretarako, lexiko arruntaz gain, lexiko tekniko eta berezituak jasotzen dira bertan. Egileen helburuetako bat informazio zabala ahal den modu trinko eta argienez ematea izan da.

Euskara zein gaztelaniako hizkuntza arruntak izan da oinarrian, hots, komunikabideetan eta irakaskuntzan erabiltzen dena. Guztira 40.000 sarrera, 60.000 adiera, 6.000 azpisarrera, esapide eta egitura gramatikalak, izen bereziak, eranskin gramatikalak eta abar ditu.



PSIKOLOGIARI BURUZ SEI IKERLAN

Jean Piaget

Gaiak - Pentsamendu
Garaikidea saila-

Gaiak argitaletxeak Pentsamendu Garaikidea sailaren barruan 23. liburua argitaratu du: "Psikologiari buruz sei ikerlan". Jean Piaget-en pentsakerari buruz sarrera orokor bat biltzen da bertan. Liburua bi zatitan banatua dago. Lehenengoan Piagetek haurren psikologian egindako aurkikuntzen funtsezkoena azaltzen da. Bigarren zatian, aldiz, oinarriko arazo batzuei pentsamendu, hizkuntza, afektibitatea eta abarri- hiltzen zaie ikuspegi genetikotik eta estrukturalistatik.

Haurren neuronak estimulatuz eta ordenatuz



















La Salleko ikastetxeak Berrikuntza Pedagogikoko Programak lantzen ari dira. Heziketa bereizgarria eta kalitateduna eskaintzeko asmoz sortutako programa sorta da berau. Momentuz Neuronen Garapen Goiztiarra programarekin hasi dira lanean Jose Luis Montero hezkuntza aholkulariaren laguntzaz. Orain, egin duten lanaren emaitzak ikusten ari dira.

Berrikuntza Pedagogikoko Programak guztira bost programa ezberdinez osatuta daude. Berauen helburua hezkuntza eskaintza osatzea da, bereizgarria eta kaliteduna izan dadin lortzea. Zer esan nahi dute bi adjektibook? Bereizgarria izateak ohiko curriculumaz gain osagarriak eta aldiberekoak diren ekintzak gehitzen dituela esan nahi du. Programa pertsonalizatuak eta bereziak lantzea, alegia. Kaliteduna izateak, berriz, zera suposatzen du: aukera legal minimoez gain ikasleen beharretan oinarritutako heziketa integrala eskaintzea.

Helburuok aurrera eramateko osatu dira, beraz, Berrikuntza Pedagogikoko Programak. Guztira bost direla aipatu dugu:

- 1- Ulises: Neuronen Garapen Goiztiarraren Programa
- 2- Optimis: Gaitasunen Garapen Programa
- 3- Crea: Sormena Garatzeko Programa
- 4- Ideal: Arazoak Konpontzeko Prozedura Orokorra
- 5- Tec Unitate Didaktikoa: Unitate

[Programen aldizkotasuna]

PROGRAMA	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
ULISES		 (6-7)		
IDEAL				
OPTIMIS				
CREA				
TEC				

Didaktikoko eredu estandarizatu.

Programa bakoitzak gai desberdina lantzen du eta guztiak Haur Hezkuntzatik has-tzen dira, beheko taulan ikusten den bezala.

Mundu osoko ikastetxe askotan lantzen dituzte programak. Estatu espainiarrean, bestalde, orain dela gutxi ezarri ziren eta Euskal Herrian momentu honetan hamar La Salle ikastetxe, Nafarroako bi ikastola eta Zarauzko Antonianoak dira programa hauetan murgildurik daudenak. Oraingoz Ulises programa jarri dute martxan, Neuronen Garapen Goiztiarraren Programa. Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutilekin lantzeko programa da, baina momentuz Haur Hezkuntzan soilik jarri dute martxan. Zehazki esanda, iaz 3 eta 4 urteko haurrekin hasi ziren, eta aurtengo ikasturtean 5 urtekoekin ere jarraituko dute. Esperientzia horren berri jasotzeko Jose Luis Montero hezkuntza aholkulariarekin eta La Salle ikastetxeetako irakasle batzuekin egon gara.

“Haurren neuronen garapena bultzatzeko programa da Ulises”

Non sortutako programa da Ulises?

Oinarri teorikoa EEBBtako da. 30 urte inguruko esperientzia dute bertan eta emaitza onak atera dituzte. Normalean jatorrizko institutuak gidatzen ditu, hots, Philadelphiako Garapen Potentzialeko Institutuak. Gu, berriz, EEBBtako unibertsitateekin eta Jonh Hopkinsen Neurologia Ikerketa Institutuarekin gaude harremanetan. Neurologian munduan dagoen instituturik onena da.

Zertan datza Ulises programa?

Haurren neuronen garapena indartzeko edo bultzatzeko programa da Ulises. 3-4 urterekin haurren neuronen garapenak etorkizuneko bizitzan garrantzi handikoa izango den prozesua garatzen du: neuro-

nen arteko loturen garapena. Gure burmuineko milioika neuronen arteko loturak bizitzako lehen urteetan garatzen dira, hau da, 0 eta 7 urte bitartean. Gure burmuinak kanpotik jasotzen dituen estimuluaren arabera osatzen dira lotura horiek. Egoera normalean familiarik, eskolatik eta ingurune sozialetik jasotzen diren estimuluekin neuronen arteko loturen %60 lortzen da. Ulises programarekin, aldiz, kopuru hori %80ra igotzen da.

Zein da, orduan, programa honen helburua?

Helburua ez da estimulazioa soilik lortzea, baizik eta haurrei sakoneko eduki kognitibo batzuk sortzea eta eduki horiek modu ordenatuan izatea. Horretarako, programa hauen muina ikus-entzunezko pilaketaren bidez neuronen arteko lotura bultzatzea da.

Zein dira Ulisesen ezaugarri nagusienak?

Beste programekin konparatuta desberdintasun nabariena zera da: beste programek neuronen estimulazioa maila fisiologikoan soilik garatzen dutela eta Ulisesek maila psikopedagogikoa ere lantzen duela. Ikus-entzunezko estimuluak eta edukiak bateratzen ditu eta hori oso garrantzitsua da. Izan ere, informazio hori oso ongi aukeratzen da gauzak esanahiaren arabera ikasteko. Irudiak eta edukiak lotuta egon behar dute.

Hainbesteko garrantzia al du irudiak?

Bai, benetan oso garrantzitsua da. Irudiek behar adinako informazioa eman behar dute, ez gehiago eta ez gutxiago. Informazio horren helburua oinarriak sortzea da eta ondoren ordenatzea. Hau da, animalien kasuan adibidez, lehenengo ugaztuna zer den ikastea, eta gero ugaztunen artean zein dauden. Eta ez alderantziz, lehenengo ugaztunen izenak ikasi eta ondoren ugaztuna izatearen ezaugarriak.

Marrazkiak zeuek egiten al dituzue?

Bai, geuk egindakoak erabiltzen ditugu. Normalean EEBBtan egindako materiala erabiltzen da beste programetan. Hauetan informazioa modu orokorrean biltzen da eta mundu osokoa. Geuk egindakoa, berriz, hemen kokatua eta egokitu dago. Gainera, edukiak esanahiaren eta jarraikortasunaren arabera sailkatuta daude. Eduki bakoitza arrazoizko denbora



Amaia de la Caba, Eukene Berriotxo, Izaskun Alonso, Arantza Muñoz, Amaia Santamaria, Karmele Iturralde, Rosa Maria Menoyo eta Jose Luis Montero

baten ondoren beraiek bere inguruan erre-kuperatzeko modukoa izaten saiatzen gara.

Programaren emaitzak ikusten al dira? Nola froga daitezke?

Egia esan, ezin da berehala frogatu, denborak aurrera egin ahala baizik. Orain Lehen Hezkuntzako seigarren mailan dauden ikasleei kontrol frogak egingo dizkiegu, eta orain Haur Hezkuntzan Ulisesekin hasi diren haurrei ere bai maila horretara iritsitakoan. Horrela, bien arteko desberdintasunak ikusi ostean neurtu eta frogatuko ditugu emaitzak.

Dena dela, orain ere nabaritu dugu bai eskolan eta bai eskolatik kanpo kontzeptu asko berreskuratu dituztela. Objektuak berehala identifikatzen dituzte eta edukiak berreskuratzen ari dira. Hau da, erlazioak eta elkarketak egiten ari direla.

Zer esan nahi duzue edukiak erre-kuperatzen ari direla diozuenen?

Programa honetan erre-kuperaketa zera da: irudiak ikusi eta informazioa eman ondoren, eskolan edota eskolatik at irudi horrekin topatzen baldin badira, berehala identifikatzea. Horrek neuronen arteko lehen lotura eman dela esan nahi du. Frogatuta dago bai familian eta bai eskolan, estimulu egokiak jasotzen ez dituzten haurrek modu erregularrez estimuluak ditutela eskolan.

Nolako harrera izan du programak gurasoen aldetik?

Beno, guk gurasoei argi eta garbi utzi nahi izan diegu ez ditugula aparteko talentuko haurrak sortuko. Hori baita pentsatzen duten lehen gauza adimena, neuronen garapena eta abarrez hitz egiten

hastean. Helburu nagusia neuronen garapena da.

Programa hau martxan jartzeak ba al du eraginik eskolaren ohiko funtzionamenduan?

Programa hauek lantzeak ez du zentroko ohiko programa curricularra eraldatzen. Honekin batera integratzeko prestatuak daude eta gelan aldi berean lantzeko. Are gehiago, programa honen bidez curriculumean planteatuta dauden arlo ugari lantzen dira.

Ulises programa gelan

Goazen bada, programa hauek gelan nola txertatzen diren ikustera. Hori azaltzeko prest agertu zaizkigu Irungo La Salle San Martzial ikastetxeko Amaia de la Caba, Zumarragako La Salle Legazpiko Eukene Berriotxo, Andoaingo La Salle Berrozpeko Izaskun Alonso, Beasaingo La Salle San Joseko Arantza Muñoz, Donostiako Bidebietako San Luis La Salleko Amaia Santamaria, Donostiako La Salleko Karmele Iturralde eta Bilboko Ntra. Sra. del Rosario La Salleko Rosa Maria Menoyo. Ikastetxe hauekin batera programa honetan integratuta daude Zarauzko Antonianoak, Eibarko La Salle Isasi, Sestaoko La Salle eta Lizarrako ikastola eta Iruñeko Faz Ziganda ikastola.

Esan bezala, haurren neuronen garapena indartzeko edo bultzatzeko programa da Ulises. Hori gela barruan lantzeko materiala, metodologia eta prozedura prestatuak daude.

Programa ezagutza arlo desberdinetan banatua dago: artea, ingurunea, natura eta teknologia. Arlo hauetako bakoitzak pack deritzon informazio sorta bat du. Pack hauetan irudiak daude eta bakoitzak irakasteleak irakurtzeko testutxo bat du.

Egun bakoitzean bost minutuko hiru saio burutzen dira. Zer egiten da bost minutu horietan? Gai berdinen inguruko hamar marrazki edo irudi erakutsi haurrei.

Irakasleek marrazki horiei buruzko lehen informazioa ematen dute lehenengo egunean. Hau da, irudiak duen testutxo hori irakurtzen du. Bigarrenengoan beste informazio bat, hirugarrenengoan beste bat eta horrela hamargarren egunera arte. Egunero marrazki berdinak pasatzen dira, baina informazioa gehituz. Aurreko egunetako informazioa gogoratzen duten galdetzen zaie lehenengo, eta ondoren informazio berria eman. Testu edo informazio hauek esanahi adierazgarrietik adierazgarritasun gutxiago dutenetara doaz. Zeren, azken marrazkia behin bakarrik ikusten da eta lehenengo hamar aldiz.

Adibidez, gaia garraibideak baldin bada, lehenengo eguneko informazioa zera izan daiteke: "hau helikopteroa da". Bigarren egunean "hau helikopteroa da eta airean ibiltzen da". Hirugarren egunean marrazkia erakutsi eta zera galde dakieke: "garraibide hau..." eta ea gogoratzen diren helikopteroa dela eta beste ezaugarriak.

Gaiek garraibideak, landareak, zuhaitzak, animaliak... dira. Aurretik erabakita egoten dira eta baita marrazkiak ere, oso garrantzitsua baita marrazki edo irudi egokiak izatea. Ezin dute anbiguoak izan, eman nahi den informazioa soilik eduki behar dute, ez gehiago.

Irakasle hauek diotenez aurrerapausoak nabaritzen dituzte. Landareak landu ondoren, esaterako, eta haurrak landare bat ikusten dutenean, ez dute esaten lore bat dela, landarearen izena baizik. Liburu batean gerezi bat ikusten badute, badakite hori gerezia dela eta gereziondotik ateratzen dela. Elkarketak ere egiten dituzte la diote. Hau da, zuhaitz bakoitza noiz loratzen den irakasten bazaie, azkenean eukalitia izan ezik beste guztiak udaberrian loratzen direla esaten dute. Uztarke-ta hori ez du irakasleak egiten, hurrek beraiek baizik.

Beraz, lehen esaten ez zituzten gauzak esaten dituzte, eta era berean, hiztegia aberastu.

Gelako horman, ikusitako argazkiak jartzen dituzte banaka-banaka, aurretik ikusi eta ikasitakoa errekuera dezaten. Denek ez dute errekueratzen, ezagutzen edota gogoratzen, baina askok bai.

Hona hemen Ulises programako pack baten eta bere magnitudeen adibidea



Euskal Herriko Artisau lanak

Zahatogintza

1. Artisau hau zahatogintza da.
2. Zahatoak egiten dira.
3. Zahatoak ahuntzaren larruz egiten dira.
4. Lehendabizi larrua mozten da, bikea botatzen da, lehortzen uzten da eta azkenik josi egiten da.
5. Ardoa gordetzeko erabiltzen da.
6. Artisautza azoketan saltzen da.

Xisteragintza

1. Artisau lan hau xisteragintza da.
2. Zesta puntan jokatzeko zareak egiten dira.
3. Zareak egiteko gaztainondo egurra eta zumea erabiltzen dira.
4. Lehendabizi armazoi bat egiten da alantzez eta gero gaztainondo egurrez eta zumez estaltzen da.
5. Zesta puntan jokatzeko erabiltzen dira.
6. Artisautza azoketan saltzen dira.

Pilotagintza

1. Artisau lan hau pilotagintza da.
2. Pilotagintzan pilotak egiten dira.
3. Pilotak egiteko goma, artilea, ahuntzaren larrua eta latexa behar dira.
4. Lehendabizi goma jartzen da eta gero artilez eta larruz biltzen da.
5. Frontoietan jokatzeko erabiltzen dira.
6. Kirolendetan eta artisautza azoketan saltzen dira.

Albokagintza

1. Artisau lan hau albokagintza da.
2. Albokak egiten dira.
3. Albokak egiteko ebano egurra eta behi adarrak erabiltzen dira.
4. Ebanozko tutuak behiaren bi adarren artean sartzen dira, eta euskarri batean finkatzen dira.
5. Musika egiteko erabiltzen dira.
6. Musika tresna dendetan eta artisautza azoketan saltzen dira.

Saregintza

1. Artisau lan hau saregintza da.
2. Sareak egiten dira.

3. Sareak egiteko nylona behar da.
4. Sareak korapiloak josiz egiten dira.
5. Arrantzarako erabiltzen dira.
6. Untzigintza biltegietan saltzen dira.

Zurgintza

1. Artisau lan hau zurgintza da.
2. Egurra lantzen da.
3. Egur nobleak erabiltzen dira.
4. Egur gainean marrazki bat egiten da eta pixkanaka irudiaren erliebea jaten da irudi hori lortu arte.
5. Egiten diren irudiak apaintzeko erabiltzen dira.
6. Erakusketa eta artisautza azoketan saltzen dira.

Saskigintza

1. Artisau lan hau saskigintza da.
2. Saskiak egiten dira.
3. Saskiak gaztainondo egurrez eta zumez egiten dira.
4. Lehendabizi armazoiak egiten da eta gero ehuntzen dira.
5. Gauzak gordetzeko eta eramateko erabiltzen dira.
6. Saskitegietan eta artisautza azoketan saltzen dira.

Ehungintza

1. Artisau lan hau ehungintza da.
2. Alfonbrak eta tapizak egiten dira.
3. Kotoia eta lihoa behar dira.
4. Alfonbrak eta tapizak ehundegian egiten dira eta kotoia eta lihoa erabiliz.
5. Egiten diren gauzak apaintzeko erabiltzen dira.
6. Artisautza azoketan saltzen dira.

Kaikugintza

1. Artisau lan hau kaikugintza da.
2. Kaikuak egiten dira.
3. Urkiz egiten dira.
4. Enborra xallatan mozten da, azpiz erretzen da eta barrukoa husten egiten da.
5. Ardien eesnea egosteko erabiltzen dira.
6. Artisautza azoketan saltzen dira.

Brasilen ere pobreziak kolore beltza du



Izaskun MADARIAGA IRAGORRI
Iturburu Haur Eskolako Irakaslea

O iartzungo Udalaren laguntzaz, Hegoamerikatik barrena egindako bidaiarekin jarraituz, Brasilgo Porto Alegre hiriko Udala ttikien hezkuntzari zer-nolako erantzuna ematen ari den ezagutzera joan ginen.

Porto Alegre, Rio Grande do Sul estatuko hiriburua da. Brasilgo Hegoekialdean kokatzen da Argentina eta Uruguayekin muga eginez. Hiriak 1.263.239¹ biztanle ditu, biztanleriaren %40a 13 eta 39 urte bitarteko adinean kokatzen delarik.

Udala ezkerreko Langileen Alderdiaren (PT) esku dago. Beraien egitas-

moa hiritarren gestioa eta partehartze zuzena bultzatzea izanik, hainbat arlotan jarri dituzte lanean urtetan antolatu dituzten herritar koadro guztiak. Demokrazia zuzena ezarri nahi dute langile-klasearekin duten identitate politikoa gauzatzuz.

Baztertuekiko konpromezua ere ez dute ahaztu eta zonalde pobreetara, txabolen asentamentuetara, errepideak irekitzea izan zen eginiko lehen ekin-tzetako bat. Modu honetan, hiriarekin komunikatzeko aukera jarri zieten, lehen ez zutena, eta bizitza marginaletik ateratzeko bideak errazten saiatzen

ari dira. Irakaskuntza izango dute apustu handienetako bat.

Porto Alegreko udalak Irakaskuntza Sare propioa du. Haur Hezkuntzatik 2. gradu arterainoko eskolak jasotzen ditu, tartean helduen alfabetatze egitura osoa antolatua duelarik. Escola Cidada izenez ezagutzen da Udala administrazioaren barruan hezkuntzako errealitatea ordezkatzeko duen egitura.

Escola Cidada honi partehartze demokratikoa ematen zaio, bere politika sei zutabetan oinarritzen delarik:

- Gestio demokratikoa
- Gizarte pedagogia



Porto Alegreko eskola pribatu bat

¹ Porto Alegre. Prefeitura Municipal de POA, 1994



Auzo pobreetan dauden eskola publiko edo subentzionatuak

- Disziplinarteko ezagutza
- Planteamendu partehartzailea
- Etengabeko formakuntza
- Soldata duinak

1989. urtean, hau da, Administrazio Popularra agintean jartzen denean (dagoeneko 3. legealdian daude) hasten dira hainbat programa martxan jartzen. Bata 1. eta 2. mailako 82 udal eskoletan Konstruktibismoa lantzea izango dugu. Emaizak begibistakoak izan ziren. Eskola galtze tasa 3 urtetan 7 puntu jeitsi zen, eskola gainditzen zutenak, aldiz, 11,3 igo eta errendimendu orokorra 5,84 puntu igo zen.

Beste programa, langileei zuzendutako Gazte eta Helduen Hezkuntza Zerbitzua izan zen, lantegietan, eskoletan, elkartetan eta zentro komunitario ezberdinetan garatzen hasi dena.

Porto Alegre 56.000 pertsona ditu alfabetatu beharrak. Egun 2.500 langilek hartzen dute parte eta programa berdinean integratu nahi dituzte beste 200 meninos de rua edo kaleko haur ere.

Gure gisara Hezkuntza Erreforma egina dute eta ildo berdinetik doazenez, Haur Hezkuntzari buruzko aldaketak (filosofikoak behintzat) oso garrantzitsuak izan dira.

Porto Alegreko udalak 33 Haur Eskola ditu eta 100 creches komunitario hitzartuak. Honez gain, baditu beste 23 eskolaurre Lehen Hezkuntzako eskoletan integraturik. Joaten den haur kopurua 10.000koa dela diote eta gaur egun 0-3 urteko adinetan eskolatzera iritsi direnak %30.

Haur Eskola guztiak funtzionamenduzko egitura berdina dute: zuzendari bat, irakasleak, begiraleak eta sukaldari eta garbitzaileak. 0-6 urte bitarteko haurrak hartzen dituzte (derrigorrezko heziketa 7 urterekin hasten da). Maisu-maistrak 4 orduko lanaldia dute, goizez edo arratsalde, eta gainontzeko orduak begiraleek osatzen dituzte. Badago udal aholkularitza zerbitzua ere, koordinatzaile pedagogikoak eskualdeka antolatuta daudelarik.

Irakasleen formakuntzari garrantzi handia ematen diote. Zainketa hutsaren kontzeptua gainditu nahi dute, Haur Eskoletako jarduerari heziketa zentzu handiagoa ezartzeko. Irakasle gehienek ez dute formakuntzarik eta honetan Unibertsitatea setsibilizatu azaltzen da. Beraiek diotenez 80ko harmarkadaz geroztik daude kezkatu-rik haur ttikien hezkuntzarekin eta nahiko kritiko azaldu ziren erreformarekin, alegia, zalantzan jarriz bertan egiten den eskola planteamenduak zenbateraino erantzun ahal izango dien haur ttikien premiei.

Gure bisitetan gauza ezberdinak jaso ahal izan genituen. Alde batetik

garbi ikusi genuen udalaren nolabaiteko kezka eta konpromezua. Kalitatea-rekin sentsibilizatuta, eraikuntza onekin eta pertsonal kopuruz ongi (gehiegi ere esango nuke nik)² hornituak topatu genituen zonalde marginatuetakoa udal Haur Eskolak. Erreformaren ildo-ko filosofian txertatzea falta zaie, ordea, horretan nahiko hastapenetan ikusi baikenituen bertako irakasleak. Hala eta guztiz ere, hitzartuak okerrago ikusi genituen. Bien arteko aldea ikaragarria zen maila guztietan: ratioan, espazio-eraikuntzan, zeregin hezitzailean... Premia handiegiak begi bistan. Ezberdintasun handiegiak.

Nire ikuspuntutik ez nintzateke bat etorriko unibertsitatekoen zalantzarekin. Ikusitakoak ikusi ondoren, "eskola" kutsu gehixeagoren beharrean dardela uste dut eta beraien egoeran, denbora eta neke handiena emango dien arloa irakasleen formakuntza eta jarduera aldaketa izango dela. Baliabide materialak errazago jartzen dira, sentsibilitate politikoa dagoenean behintzat.

Udal Haur Eskola huez gain, beste eskola pribatuak ikusi genituen. Eskola aurrerakoiak filosofia eta pedagogia aldetik begiratu, baina era berean eliteko eskolak, aberatsentzat egindako eskolak, eskola garestiak³. Haur ttikiekin hasitako eskolak dira, haurrak handitu ahala goruntz doazenak eta momentu honetan 2-8 urtetara zuzentzen direnak. Piaget, Freinet, Emilia Ferreiro, Konstruktibismoa, Natura, Ekologia, gurasoen partehartzea... dena zegoen present. Diruak aurpegi polita du, baina ez da hau Porto Alegreko bisitak erakutsi zidana. Eskola hauetan ez nuen koloredun haur bat bakarra ere topatu, pobreen eskoletan orokorra zena. Hori da Porto Alegren ezagutu nuen errealitate tristea, Brasilen ere pobreziak kolore beltza duela.

² 0-6 urteko 120 haur. Sukaldean bost sukaldari bi gune ezberdinetan: 0-2 urtekoen janaria prestatzeko eta 2-6 urtekoena prestatzeko. Guztira 38 pertsona bertan.

³ Lanaldi erdiगतिक 300\$ ordaintzen dute. Kontu izan lansari minimoa 130\$tan dagoela.